

Ander Manterolari elkarrizketa

IMANOL MURUA URIA

Kazetaria

Labayru Ikastegiak egin duen lana eta urratu duen bidea ez daude ulertzerik Ander Manterolak egin duen lanaren eta urratu duen bidearen berri izan gabe. Eta alderantziz, Mante-rola nor den eta zer egin duen jakiteko Labayru zer den eta zer egin duen jakin behar da. Labayru Ikastegia 1977an eratu aurretik hasi zen Ander Manterola Derion Udako Euskal Ikas-taroa antolatzen eta Euskal Biblioteka atontzen, baita Jose Mi-gel Barandiaranen gidaritzapean etnografia lanak egiten eta sustatzen ere, eta Ikastegia sortu ondotik lan horietan berbe-retan jarraitu zuen, horretarako sortu baitzuten hain zuzen ere erakunde berria, 70eko hamarkadaren hasieran abiatutako la-nei babesa eta bultzada emateko. Ez du geroztik Derio utzi, baina Zeanuri jaioterria du bizileku.

1934ko maiatzaren 23an jaio zen. Zeanuriko giro euskal-dun, tradizional eta kristauan hezia, 11 urterekin seminariora jo zuen, apaiz izatea berak erabakita. Arteagan egin zituen Seminario Txikiko hiru urteak eta Gasteizen Seminario Nagu-siko zortzi urte; bederatzigarrena eta azkena, Derion egin zuen, gerora luzaroan lantoki izan duen etxean. 23 urterekin apaiztua, Laukirizen, Bilboko Zabala auzunean eta Comillasko

Eliz Unibertsitatean egonaldi laburrak egin ondoren Zamudio-ko parrokiara bidali zuten, han bost urte egiteko, eta Durango ondoren, beste hiru urterako. Garai hartan engaiatu zitzaion buru-belarri kristau gazteen mugimendua antolatzeari eta sustatzeari: Bizkaiko Herri Gaztediren sortzaileetakoa izan zen eta, hainbat urtez, baita buru ere. 60ko hamarkadak aldatuta sakonak ekarri zituen euskal gizartera eta, aldatuta haiekin, baita gazte mugimendu kristauen krisia ere.

Lovainako Unibertsitate Katolikora jo zuen orduan Manterolak, Teologia ikasketak berritzera. Ez zioten utzi, ordea, urtebete baizik egiten. Bizkaiko Elizbarrutitik zituen deika, Derioko Seminarioan haren beharra zutela eta. Ez zen giro Derion, Mante-rola iritsi zenean, 1968ko matxinada giroa Seminarioa ere iritsi baitzen, bere modura. Manterola heldu berria zela egin zuten, hain zuzen ere, 60 apaizek Seminarioko okupazio sonatua, Manterolari oroimen onik ekartzen ez dion protestaldia. Giroa baretu zen azkenean, eta lan giroa berreskuratu ere bai.

Ez zuen denbora askorik behar izan, Deriora itzuli orduko, euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia zuten lanetan hasteko, gaur egun arte bere lanaren ardatz izan dituen jardunei lotzeko. Udako Euskal Ikastaroan antolatzea izan zen aurrena, Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarate irakasle zirela: apai-zak eta moja irakasleak euskaraz trebatzea izan zen hasierako helburua, baina berehala zabaldu zizkieten ateak hizkuntzaren ezagutzan sakondu nahi zuten guztiei, ikastoletako andereño eta maisuei bereziki. Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra egin berria, euskara batuari buruzko eztabaida bizi-bizi zegoela, bide propioa abiatu zuten Derion, gaur egun ere indarrean duten goiburuarekin: *dakigunetik ez dakigunera*; hau da, euskara baturako bidea bizkaieratik barrena eginez. Ikastaroa antolatzen hastearekin batera ohartu zen euskarazko biblioteka baten beharra zutela han, eta halaxe ekin Euskal Biblioteka antolatzeari, Andres Mañarikua historiagileak Derioko Seminarioko biblioteka nagusian zituen euskal liburuekin abiatuta.

Handik urte gutxira ekin zion ikerketa etnografikoa egiteari eta bultzatzeari: 1972an ekarri zuten Jose Migel Barandiaran

Deriora, gerora Etniker Bizkaia osatuko zutenei metodologia ikastaroa ematera, eta geroztik Ataungo maisuak erakutsitako ildoari eutsi diote lan etnografikoan; 1987tik aurrera, Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren lanak Derion koordinatu dituzte, Ander Manterolaren ardurapean.

Ikerketa egin du, idatzi eta argitaratu ere bai, irakasle izatea ere egokitu zaio, baina Ander Manterolak batez ere eragin egin du: antolatu, bultzatu, kudeatu, sustatu, laguntzak bilatu... Labayru Ikastegiaren arima eta bihotza izan da, Ikastegiaren jardun aberatsaren eta emaitza oparoaren errudun nagusietakoa. Ikastegiko zuzendaritzan izan da sorreratik, eta 2008an eman dio lekukoa Adolfo Arejitari. Baina goizero Labayruren Derioko egoitzara joanez jarraitzen du, Euskal Bibliotekako eta Etnikerreko lanekin eta ardurekin jarraitzen baitu. Apaiz lanari ere ez dio sekula utzi: Zeanuriko parrokiari ari da, 1976tik hutsik egin gabe.

Bizkaitar Argia saria eman zion Bizkaiko Foru Aldundiak 2002an, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2003an, eta Lauaxeta Saria eman zion 2005ean Bizkaiko Foru Aldundiak.

Haurtzaroa eta gerra

1934an jaio zinen, Zeanurin. Kanean, ez baserrian.

Zeanuriko herrian baserriak daude, auzuneak, eta, erdi partean, gune bat dago, *plazea* esaten dioguna; bertan dendak eta tailerrak. Ni dendari baten semea naiz. Aita dendaria eta zapataria izan nuen.

Begiak ireki zenitueneko, gerra. Zuk bi urte zenituela hasi zen. Zer neurritan markatu zuen gerrak zure haurtzaroa?

Sakon ere sakon. Nire aita espetxean egon zen hiru urte luzez, eta ama ere bai, hil batzuetan. Gu hiru anaia ginen. Gero neska bat jaio zen gerraostean. Baina orduan hiru ginen. Ez geneukan nora joan, eta joan ginen aitita eta amamagana, errotara, gure amaren jaiotetxera. Zeanurin dago errota hori, oraindino ere han dago, plazatik kilometro batera. Ni bigarrena izan nintzen. Zaharrenak lau urte izango zituen, eta hirugarrena jaio berria zen, 1936an jaioa. Aitita eta amama zaharrek ziren, 80na urte inguru zituzten, zeren nire ama hamaiagarrena izan zen hamabitik. Errotako doinuak ditut oraindino belarrian, gaez errotak egiten zituen erritmoenak.

Bi urte besterik ez izanagatik ere, garai haiek gogoratzen dituzu, orduan.

Errotara joan baino lehenago, aita espetxeratu aurretik, Bilbora errefuxiatu ginen. Hiru urte egiteko izango nituen, eta gauzatxo batzuk gogoratzen ditut: sirena doinuak, Bilboko Alhondigara errefuxiatzera zelan joan ginen eta horrelako irudi batzuk gorde ditut buruan.

Noiz eta nolatan Bilbora?

Zeanurin bonbardaketa bat izan zen apirilaren lehenengo egunetan, 1937an...

Gernikakoa baino lehenago, orduan.

Bai. Orduan, jenderik gehiena errefuxiatu egin zen Bilbora. Han egon ginen pisuren batean. Iparragirre kalea zela

badakit. Aita eta amarekin. Aita gero eraman egin zuten kartzelara, abuztuan uste dut. Ama, beranduago, handik urte bira. Bilbon egon ginen hiru edo lau hilabete, francotarrak sartu ziren arte. Orduan joan ginen berriro geure etxera, Zeanurira. Eta joan ginenean, etxea bahituta zegoen.

Aita abertzalea zelako?

Bai.

Eusko Gudarostean parte hartu zuen?

Ez zen zinegotzia izan, osaba bezala. Baina ekintzailea zen. Idatzi ere egiten zuen *Euzkadi* egunkarian, herriko kronikak eta horrelakoak. Gerra sortu zenean berak herriko gazteei deitu zien, eta esan zien hobe zutela Gudarostean izena ematea, bestela erreklutatze bat egongo zela derrigortua. Eta gainera Eusko Gudarostean laguntasun gehiago izango zela, kapilaua izango zutela eta horrelakoak. Nire aita oso erlijiosoa zen. Gazteei hori esan ziela eta, salatu egin zuten, altxamenduaren aurkako kolaborazioa egin zuela egotzi zioten. Lehenengotan heriotzara kondenatu zuten, baina ez zen gauzatu. Ez dakit zenbat urterako zigorra eman zioten. Eta, hiru urte eta gehiagora, askatu egin zuten, 1940an.

***Euzkadi* egunkarian nola idazten zuen aitak, gaztelera ala euskaraz?**

Euskaraz. *Baserritar bat* sinatzen zuen. Nire pozik handiena izan da Justo Mokoroaren lokuzioen errepertorioan [*Repertorio de locuciones del habla popular vasca*] aitaren esaldi batzuk aurkitu izana. Aitak hartu-eman handia izan zuen, batez ere, Lauaxetarekin. Nire ustez, Lauaxetak zuzentzen zuen berak idatzitakoa. Aita ez zegoen euskaraz eskolatua, baina euskaraz asko irakurtzen zuen. Kirikiñorekin ere hartu-emana izan zuen, baina lehenago, Kirikiño 1929an hil zen eta. Saritua ere izan zen aita, euskal idazle legez.

Zer sari?

Berari eman zioten ikurra daukat gogoan: urrezko erle bat, azpian ikurrina eta *euskal idazkarija* edo horrelako zer-bait jartzen zuen. Hori gogoan daukat.

Aita nongo kartzelan eduki zuten?

Lehenengo *Upomendi* barkuan. Kartzela hura gogoratzen dut: joanda nago bisitatzen, hiru bat urterekin.

Ume baten begietan, zer zen kartzela hura?

Gogoratzen naiz pasabide bat zegoela itsasontzira igotzeko eta beldurra neukan, zeren ura zegoen azpian eta ura zikin. Gogoratzen dut hango preso batek erregalatu zidala berak eskuz egindako zurezko txalupatxo bat.

Non zegoen *Upomendi* ontzia?

Bilboko ibaian, Zorrotzan zegoen. Zorrotzara joaten ginen aita ikusten. Gero Larrinagako espetxera aldatu zuten. Larrinagakoa ez dut gogoratzen asko. Eta azkenean Begoñako Karmelora eraman zuten. Fraideen etxea kartzela bihurtu zuten. Hor egon zen azkenengo denboraldi luzean. Talde ederra egin zuten hor, lagunak egin zituen bertan.

Eta amarena, nola gertatu zen?

Geroago izan zen, 1938an uste dut. Nire amak aitari idatzi egiten zion kartzelara. Gutun txikitxo batzuk. Bat sartu zion tolestura batean, arropa etxera ekartzen zuten garbitzeko eta. Gutun hartan Zeanuriko jazoera bat kontatzen zion. Hiri bat hartu zutenean francotarrek gerran, ez dakit izan zen Tarragona ala Teruel, nire herrian kanpaiak jo zituzten. Arzuaga deritzon auzune batean, ermitako kanpaiak entzutean, ulertu zuten sua zegoela nonbaiten. Hartu zituzten kantinak eta baldeak eta joan ziren ea sua non zen. Eta jazoera barregarri hori kontatzean, nire amak, erdaraz, jarri zuen: «*cuando entraron los nacionales...*». Harrapatu zioten gutuna eta leporatu zioten idatzi zuela «*cuando entraron los cochinos nacionales*». Hori dela eta sartu zuten kartzelan.

Zein kartzelatan?

Orue izeneko Bilboko txalet baten, Indautxun. Emakumeentzako kartzela bezala egokitu zuten. Hor egon zen bi hilabete edo.

Etxea bahitu egin zizuetela esan duzu. Berreskuratu zenuten?

Ez genuen galdu etxea. Aita kartzelatik atera eta laster sartu ginen geure etxera. Aita etorri zenean, lehenengo errota-
ra etorri zen, eta gero denok joan ginen geure etxera. Hiru urte garrenera itzuli ziguten.

Gerraosteko Zeanurin

Gerrako gertaera latz haiek zer nolako arrastoa utzi zizuten?

Sarritan egon naiz hori pentsatzen. Nire haurtzaroa oso zoriontsua izan zen. Aita kartzelan dago? Bada, goazen aita ikusten! Eta gu pozik, aita ikusten. Amarena izan zen penagarriagoa... negar egiten genuen amaren faltan. Aitarena, aldiz... Aita ikusten, pozik amarekin! Ez zegoen traumarik. Nire ustez trauma handiagoa izan genuen gerraostean. Zeren, ume ginela, herriko aguazilak debekatu egiten zuen gu errekarara sartzea, igeri egiten. «*Hi bizkaitarra haiz!*», esaten zigun.

Bizkaitarra?

Abertzalea esan nahi zuen. Abertzaleei *bizkaitarrak* esaten zieten, Bizkaian behintzat. Guri ez zigun uzten igeri egiten, eta beste batzuei, bai. Hori daukat buruan sartuta. Zergatik hori? *Bizkaitarra* izateagatik!

Aguazilak euskaraz edo gazteleraz egiten zizuen?

Euskaraz! Jakina! Gure herrian ez zen egiten erdararik! Botikariak edo medikuak egingo zuten euren artean, baina gure artean ez zegoen erdararik. Nire herrira etorri zen praktikante bat seme birekin. Nire adinekoak ziren, ez zeki-

ten euskararik, aita eta ama Galiziakoak zituzten. Eta haiek sei hilabeteren barruan euskara egiten zuten nik bezala!

Eta eskolan?

Erdaraz dena. Euskaraz tutik ere ez. Baina aparteko gauza bat gertatu zen. Maisu biak errepublikanoak izandakoak ziren. Nire herria Bilbotik 31 kilometrora dago. Maisuetako bat, Don Javier Ruiz Garcia, erbesteratu zuten Bilbotik 30 kilometrora eta, gure herria 31 kilometrora zegoenez, erabaki zuen Zeanurira joatea. Eta bestea, Don Pedro Pipaon; biak errepublikanoak! Nik uste dut horregatik nire umezarroan —hamar urtera arte egon nintzen eskola hartan— inor ez zutela zigortu euskara egiteagatik.

Erdaldunak ziren bi maisuak?

Ez zekiten euskararik. Gogoratzen dut maisu honek, Don Javierrek, kromoak-eta ematen zizkigula: Admunsenen Antartikarako espedizioaz-eta. Gogoratzen dut behin esan zuela: «*Vamos a aprender el Cara al Sol, que va a venir el inspector*». Baina guk ez genuen kantatzen horrelakorik eskolan, inspektorea etortzen ez bazen.

“

Ni elizan sartu nintzenean elizmutil, 1940an, jada euskaraz egiten zen

Elizan dotrina zer hizkuntzatan ikasten zenuten?

Euskaraz ematen genuen. Gure herriak orduan 2.500 biztanle zituen. Bost apaiz egongo ziren. Aurreko parrokoa, Don Benito Atutxa, hil egin zuten gorriek, erretiradan. Gerraostean gogoratzen naiz garizumako gurutze-bide batzuk erdaraz egin zirela elizan, eta inoiz erdaraz ere predikatu zela, lehenengo urteetan. Baina hori, nire ustez, 1937-38 inguruetan izango zen. Ni elizan sartu nintzenean elizmutil, 1940an, jada euskaraz egiten zen.

”

Bost apaizak ziren euskaldunak?

Jakina. Han ez zen beste biderik. Herrian gehienak baserri-tarrak ziren. Gehienek ez zekiten espainolik. Nire osaba erro-

tariak, esate baterako, Gastoetako Komisarioak joaten zitzaizkionean zerbait erreklamatzen, esaten zien: «*Jues!*», «*Jues!*», juezaren baimena behar zutela adierazteko. Ez zekien erdararik.

Beste osaba bat, Gabirel Manterola, apaiza eta idazlea zenuten.

Gutunetatik ezagutu nuen. Erbestean egon zen, Ingalaterran, 12 urtez. Haren gutunak irakurtzen genituen etxean. Zentsura pasatakoak ziren. Goitik beherako marka bat izaten zuten gutunek, zigilatua bezala, eta ipintzen zuen: «*pasado por la censura*», edo horrelako zerbait. Gutunak ironiaz beterik idazten zituen, edo izenak aldatuta... apur bat kriptikoak. Makinaz idazten zituen.

Osaba idazlea, aita kronista... euskarazko argitalpenik ba al zenuen garai hartan eskura?

Zerbait gelditzen zen etxean. Esate batera, errotan dotrina bat zegoen euskaraz, antzinakoa, nire aititak eta amamak garizuman ikasten zutena. Ondo gogoratzen dut nire txikitako lehenengo liburutxoa, [Georg] Schurhammer-en San Frantzisko Xabierren bizitza, irudiz hornitua, umeentzako idatzia [*Xabier'tar Prantzisko Deunaren bizitz laburra*, 1925]. Liburu batzuk ere utzi zituen osabak, erbestera joan baino lehenago gurekin bizi izan zen momentu batean. Bere liburu batzuk geneuzkan irakurtzeko: *Argi donea*, *Josutxu*. Gogoratzen dut baita *Xabiartxo* ere, Ixaka Lopez Mendizabalena. Asko gustatzen zitzaidan, baina ez zegoen osorik. Apurtuta zegoen. Erabiliaren porasuz izango zen.

Besterik irakurtzeko aukerarik izan zenuten?

Herriko beste denda batean, ez gurean, tebeoak ekartzen hasi ziren. Tebeo asko irakurri genuen, erdarazkoak denak. Esate baterako: *Flash Gordon*, *Roberto Alcazar y Pedrín*, *El Guerrero del Antifaz*, *El hombre enmascarado*...

Erosi egiten zenituzten ala trukatu?

Nik sekula ez dut tebeorik erosi. Norbaitek ekartzen zituen Bilbotik. Mutikoak sastrearen dendan biltzen ginen,

eta han irakurtzen genituen. Gero, nobelak irakurtzen hasi ginen. Nire lehenengoa: *Dick Norton*, indioena. Beste bat, *Peter Rice*. Beste bat, *Bill Barnes*, hegazkinlaria. Zortzi-bederatzi urterekin. Eta gero, periodikoa.

Zer periodiko?

La Gaceta del Norte. Gogoratzen dut, esate baterako, Stalingradeko borroka periodikoan irakurri nuela. Baita, oso ondo, Normandiako lehorreratzea ere. Urte haietan klandestinitateko sare bat bazegoen gure herrian eta aldizkariak ekartzen zituzten Bilbotik, kontsulatuetatik. *Victory*, esate baterako, amerikarrek zabaltzen zuten. Eta *En Guardia*, ingelesek. Horiek irakurtzen genituen. Gerra hori bizi izan genuen umezaroan.

Aliatuek irabaziz gero frankismoa eroriko zen esperantza hura, umeenganaino iristen zen? Jabetzen zineten hainbeste?

Beharbada, ez horrenbeste. Baina, gu, alemanen kontra! Beti ingelesen alde. Zeanuriko giroan hori zegoen. Ingelesen eta amerikarren alde.

Gertaera harrigarri bat ere izan genuen Zeanurin. 1944an izan zen, ekainaren 19an. Ez geneukan eskolarik, zeren Bilboren liberazioa ospatzen zen egun horretan. Gu jolasean genbiltzala, ikusi genituen zeruan globo arraro batzuk. Txikitxoak ziren. Hasi ginen begira, begira eta geroago eta handiago egiten ziren. Badakizu zer ziren?

Zer ziren?

Paraxutista amerikarrak. Bordele bonbardatzen ari zirela, artilleria alemanak jo zuen hegazkina, etorri zen hona eta, itsasora jausi baino lehen, salto egin zuten. Komandanteak Ruben Montiel zeukan izena. Kaliforniakoa zen, eta espainolez egiten zuen. Beste bat, mekanikoa, buzo horiz jantzi-takoa, baserri batean jausi zen.

Zuek beraiekin izan zineten?

Eurekin egon ginen! Zeanurin bertan jausi ziren plazatik hurbil. Gorbeiarantz jausi ziren beste hiru, eta Arratian bes-

te hiru. Amerikarrak zirela jakin genuen. Gure herrian apur bat burlatiak ziren, eta karlistei esaten zieten, francotarrei: «Bajatozak! Bajatozak!». Nire aitaren tailerrean mutil gazte bat zegoen, Zornotzakoa, eta umezaroan Ingalaterran egonda zegoenez, ingelesez zekien. Bera izan zen lehenengo interpretea. Gero, komandante horrek erregalatu egin zituen bere jakak nurruzkoa, txanoa... Eta interprete egin zuen aitaren tailerreko mutilari bere pistola eman zion.

Pistola?

Bai, bai. Zeren artean ez ziren agertu guardia zibilak herrira. Gero etorri ziren, eta paraxut guztiak batu zituzten.

Guardia zibilak non zeneuzkaten, Zeanuritik hurbilen?

Areatzan. Ez zen ibiltzen guardia zibil askorik gure herrian. Behin bai. Behin zabaldu zen bazebiltzala gerrillariak Gorbeian; makiak. Orduan Gorbeia guztia inguratu zuten guardia zibilek eta militarrek. Orduan bai, gogoratzen dut, gure errotatik hurbil egon zirela kamioi handiak, toldodunak, soldaduz beterik.

Azkenean izan zen makirik Gorbeian?

Ez dut uste. Makiren bat, beharbada, joan-etorrian zebilena. Esaten zuten Asturiastik Frantziara Gorbeian barrena joan behar zela.

Bizimodu aldaketa

11 urterekin Seminario Txikira joan zinen, Gaztelu-Elexabeitira, Arteara. Nolatan apaizgai?

Ez dakit noiztik, baina nik erabakita neukan abade egitea. Baina inork ez zidan sinesten.

“

1944ko ekainaren
19an paraxutista
amerikar batzuk
Zeanurin bertan
jausi ziren plazatik
hurbil

”

Zergatik?

Mutiko okerra nintzen, bihurria. Niri esaten zidaten: «Hi abade egiten bahaz, ni obispo!». Asmoa baneukan. Zergatik? Beti egon naiz abadeen artean. Ni neu meza-mutila izan nintzen sei urte nituenetik. Egunero joaten nintzen meza laguntzen; «meza erasoten», esaten genuen guk.

Eraso, lagundu adierazteko?

Bai. Egunero joaten nintzen. Sei urte nituenetik, hamar urtera arte. Horregatik, hartu-eman handia neukan abadeekin. Eliztxoria nintzen, hor bizi ginen, bai elizkizunetan, bai kanpaia jotzen, dorrera igotzen, bajatzen... pozik. Bihurrikeriak egiteko asmotan beti: ardoa edan abadeari, tranparen bat egin, atabakatik diruren bat atera...

Zure bizimodua erabat aldatu zen, 11 urterekin.

Etiket urruntzea gogorra izan zen. Negar ere bai. Lehenengo egunak neure aitaren lehengusu baten etxean igaro nituen, Arteako Seminarioaren aurrean. Triste samarrak izan ziren. Aldaketa handia. Libertatean bizitzetik zerrendetan ibili behar izatera. Hirunaka joan behar paseoak egiten, eskola neurtuak, kaperara goizean eta arratsaldean... Gogorra zen, baina niretzat ez zen izan trauma bat. Horrela hartzen genuen. Abade egiteko seminaria joan behar bazen, joan egiten ginen. Aldaketa eduki genuen jantzian ere: sotanarekin ibiltzen ginen elizkizunetarako, ez eskoletarako. Etxera ere, beltzez jantzita joaten ginen. 11 urterekin!

Sotanarekin etxera?

Ez. Arropa beltzez. Jertse beltzak, praka beltzak... Amak tindatu egiten zituen. Seminario Txikiko aldi guztia beltzez jantzita egin dut.

Asteburuetan edo jai egunen batzuetan Zeanurira joaten zinen?

Ez, ez. Seminarioan San Migeletan sartzen ginen, eta Gabonetan irten. Bitartean, Kontzepzio Egunean Seminaria-

ko eskean irteten ginen. Baina hiru hilabete, barruan. Gero, Erregeen ostean sartzten ginen, eta barruan egoten ginen ekainera arte; San Joanetan udaldiko oporrak, hiru hilabete.

Etxera bisitarik egin gabe?

Urte barruan etxekoak joaten ziren gu ikustera, baina ez gu etxekoak ikustera. Orduko denborak oso eskasak ziren janari aldetik. Orduan etxekoek eroaten zituzten ogia eta arrautza batzuk, edo lukainkaren bat. Horrekin konpentsatzen zen barruko gabezia. Denbora txarrak izan ziren: 1945, 1946, 1947... Janarien errazionamendua zegoen herrian. Errazionamendu txartela eroan behar genuen Seminarioa.

Zeanurin baino gehiago nabaritu zenuen janari eskasiarena Seminarioan?

Bai. Zeanurin, gure osabaren errotan ogia geneukan zenbat gura, eta eztia, sagarrak, gaztainak... geneuzkan. Han ez zegoen goserik. Baina Seminarioan... kalitate aldetik batez ere. Baba zabala jaten genuen, pure eginda. Eta baba zabal zikuak koko asko zeukan. Kokoz beterikoa jaten genuen.

Kokoz beteak?

Harrak. Harrez beterik.

Dena gazteleraz egiten zenuten Seminario Txikian?

Dena! Ezertxo ere ez euskaraz. Eta gero konaturatu naiz: sei irakasle geneuzkan Arteako Seminario Txikian, eta seitik lauk euskaraz zekiten. Eta bat euskal idazlea! Don Manuel Estomba, irundarra. Beste bat, Zarauzkoa, Jose Maria Iruetagoiena; nire aita espirituala izan zen, oso gizon ona. Beste bat, Don Santiago Duo, MUNDAKAKOIA, euskaldun peto-petoa. Beste bat, Don Francisco Garmendia, donostiarra. Arabarrak bi zeuden, eta haiek ez zekiten. Don Andres Ibañez, Murgiakoa, eta Don Isidro Larrauri, erretore zena, Gasteizkoa. Guri sekula inork ez zigun esan ezta «agur» ere.

“

Seminario Txikian sei irakasletatik lauk euskaraz zekiten, baina guri sekula inork ez zigun esan ezta «agur» ere

”

Umeen artean, nola egiten zenuten?

Erdaraz. Aldaketa handia izan zen hori ere niretzat.

Zeanuriko lagunik ez zenuen?

Ez, bakarrik joan nintzen urte hartan. Nire herriko bat ba-neukan, ni baino urtebete edo bi urte nagusiagoa.

Euskal kontzientzia esnatzen

Hiru urte egin zenituen Artean, eta handik Gasteizera, Seminario Nagusira.

Gasteizko Seminarioan lehenengo bi urte egin nituen, Humanitateak amaitzeko. Gero hiru urte Filosofia ikasten eta beste hiru urte Teologia. Gero urtebete Derioko Seminario berrian. Gasteizen zortzi urte egin nituen. Hura da nire Seminarioa.

Aldaketa handia izan zen Arteatik Gasteizera joatea ere?

Arteako barnetegian ere bizimodu latza izan arren, familian bezala bizi ginen. Irakasleak samurrak ziren, oso samurrak. Hurbil zeuden. Gurekin bizi ziren, eta horrek familia kutsua ematen zion bizimodu horri, nahiz eta bizitza bera latza izan ume batentzat. Gaur egun ez legoke inor hori jasan-gu lukeenik. Baina Gasteizera joan ginenean, aldatu egin zen bizitza. Etxea ikaragarria zen, handia. Goian teologoak zeuden, gu baino zortzi-bederatzi urte zaharragoak, gizon eginak. Gero, filosofoak, gazteagoak baina gu baino zaharragoak. Eta gero gu, gaztetxoak. Etxe handia! Seiehun eta gehiago ikasle. Irakasleak ere kanpotik etortzen ziren. Kanpoan bizi ziren. Sentitzen genuen baita: hau serio doa, hau beste gauza bat da. Ikasketak ere trinkoak eta gogo-bizitza sakonagoa.

Gasteizen ere den-dena gazteleraz zen?

Gaztelera hutsez. Han agerian ez zegoen ezer euskaraz. Azken egunean bakarrik egiten zen euskara, etxera joan au-

rretik denok elkartzen ginen kaperan, eta bihotzez eta go-goz abesten genuen *Agur, Jesusen ama*.

Urte osoan euskaraz ez zenuten besterik abesten?

Koruan abesten ziren euskal kanta batzuk, kontzertuak-eta ematen zirenean. Bestela, ezer ez. Baina bagenekien euskaldunak ginela!

Nola eusten zenioten kontzientzia horri, hain giro erdaldunean bizi izanda? Etxera joandakoan, Zeanurin?

Ez, bertan, Seminarioan bertan. Lagunak bagenituen euskaraz egiteko. Han ere klandestinitate antzekoa bazegoen. Esate baterako, nik han irakurri dut Jose Antonio Agirreren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*.

Nola heltzen ziren halako argitalpenak zure eskura?

Ez dakit. Irakurri nuen baita ere *La Nación Vasca*, Engracio Aranzadirena. Eta ez bakarrik hori. Konturatu ginen irakasleen artean bazegoela joera bat, ofiziala ez zena. Esate baterako, Rodriguez de Yurre irakaslearen klaseetan kritika handia egiten zitzaion totalitarismoari eta sindikalismo bertikalari. Ez zuen sekula *Euskadi* aipatu, baina nazio kontzeptuaz eta estatu kontzeptuaz argi jarduten zuen. Behin, Jesus Gaztañaga lagun gipuzkoarra —gero idazle izandakoa, hil zen gizarajoa— joan zela irakasleagana eta, nazio kontzeptua eta abar irakasten jardun zuenez, esan zion, *La Nación Vasca* liburua erakusten zion bitartean: «¿Esto se puede leer?». Eta Rodriguez de Yurre irakasleak erantzun zion: «Bueno, es una opinión». Ez zuen salatu. Gero jakin dut irakasle hau bestaldera joaten zela Barandiaran ikusten! Orain jakin dut, Barandiaranen egunkaria irakurrita.

Irakasle hura salbuespena zen, edo gehiago ere baziren?

Gehiago. Bazen irakasle bat, oso gizon fina; ez zen aberzalea, baina guri euskaldunoi, filosofiako kurtsoetan geundela, *Egan* aldizkaria eskuratzen zigun. 1951n edo 1952an.

Egan-ek jada euskarazko olerkiak argitaratzen zituen. Euskaraz irakurri genituen lehen testuak izango ziren. Gerora, Lizardi ere irakurri genuen. Niretzat zailagoa zen gipuzkeraz irakurtzea. Hamasei-hamazazpi urte izango nituen. Gogoratzen ditut *Xabiartxoren heriotza* eta *Oia*. Olerki ederak. Horiek ia buruz ikasi genituen. Gure eskuetan egon zen beste liburu bat oso interesgarria: Orixeren *Urte guziko Meza-Bezperak*, 1950ean Frantzian inprimatu zena.

Irakasleen eskutik jaso zenuten?

Ez, ez. Euskaldunon artean zabaldu zen eta gutariko batzuek erosi egin genuen. Zu joaten bazinen meztara liburu horrekin, inork ez zizun esaten ezer.

Elizbarrutiaren zatiketa

Ikasketen azken urtea Derion egin zenuen. Zergatik?

1949-50ean banandu egin zen Gasteizko Elizbarrutia. Ordua arte Elizbarrutia bakarra zen, eta barruan zeuden Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia. Hirurok bat egiten genuen. Seminario bakarra zegoen. Eta 1950ean erabaki zen zatitzea: Gipuzkoak bere gotzaina eta bere seminarioa, Bizkaiak ere bere gotzaina eta bere seminarioa, eta Arabak ere berdin. Denok dakigu erabaki politikoa izan zela. Eta erabaki horri buruz jokabide bi zeuden gure artean. Konturatu nintzen batzuk ez ginea zatiketa horren aldeko, eta beste batzuk, bai. Eta gehienbatean suertatzen zen zatiketa horren aldeko ez ginenak abertzaleagoak ginela.

“

Konturatu nintzen Elizbarrutiaren zatiketaren aldeko ez ginenak abertzaleagoak ginela

”

Zatiketaren aurretik Gipuzkoak eta Bizkaiak ez zeukaten euren gotzainik, ezta seminariorik ere?

Ez, ez zeukaten. Gasteizen elkartzen ginen Hego Euskal Herriko apaizgai guztiak, Nafarroakoak izan ezik. Irakasleak ere, gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak ziren. Denok

elkartzen ginen bertan. Eta, jakina, hartu-eman handia sortzen zen. Nik gipuzkoar asko izan ditut kideko eta lagun. Gaur egun hartu-eman hori ez dago.

Zatiketa horren ondorioz sortu zen, beraz, Derioko Seminarioa.

Hori da. Derioko eraikin hau, gerra aurrean zoroetxe izateko egindakoa zen. Gu bizkaitarrok ez ginen etorri segituan. Lehenago gipuzkoarrak joan ziren Donostiara. Gipuzkoako kideak izan nituen Teologiako lehenengo urtera arte. Eta arabarrak izan ditut kide Teologiako hirugarren urtera arte. Hiru urte lehenago joan ziren apaizgai gipuzkoarrak. Eta gu Deriora etorri ginen 1956an. Oraindino amaitu barik zegoen eraikin hau.

Gasteiztik Deriora etorri zinenean, nabarmentzeko moduko aldaketarik izan zen?

Lehenengo euskarazko ikasketak Derion izan genituen. [Paulo] Zamarriparen liburu batetik. Irakasgaiaren izenburua zen: *lingua vasconum*. Irakaslea Don Fernando Arzuaga. Jaiotzez euskaldunak ginenak eta «agur» ere esaten ez zekitenak, denok batera. Guretzat ez zen ezer. Broma bat. Egia esan, ordurako irakurtzen genuen euskara. Orixerena irakurrita neukan eta Biblia ere atera zen euskaraz. *Ambost egun Urgainen* ere, Jose Antonio Loidirena, irakurri nuen; ez dakit ikasle nintzela, ala apaiz berri nintzela. Eta beste gauza bat esango dizut: gu Derion azken urteko ikasle ginela, *Jakin* aldizkaria hartu genuen Arantzazutik. Lehenengoko zenbakia. Gordeta daukat.

Gogoan duzu nondik nora iritsi zen?

Uste dut Larrañaga izeneko ikaskide batek ekarri zuela. Harritu egin ginen, zeren han saio filosofikoak ateratzen ziren, euskaraz. Geroago etorri ziren beste aldizkari antzekoak, *Arnas*, sakramentinoek ateratzen zutena, *Laiaketan*, pasio-tarrek...

Jakin-en aurreneko zenbakiaren ondoren, hurrengoak ere jaso zenituzten?

Ez dakit harpidedun egin nintzen, ala trukean jasotzen genituen. *Jakin*-en lehenengo aleak gero Euskal Bibliotekara eraman ditut.

Langile gazteekin

Derion ikasketak bukatu eta, jarraian, 23 urterekin, apaiz.

Lehenengo Laukarizen, Mungia ondoan, egon nintzen parroko, 23 urterekin. Eta aldi berean Derioko Seminario Txikiko irakasle izendatu ninduten. Hiru hilabete eskas eman nituen Laukarizen. Urrian Bilbora bidali ninduten, aldiri batera, Zabala auzora, San Rafael parrokiara. Hori izan zen, nire bizitzan, aldaketarik handiena.

Zergatik?

Ni ez naiz hiriko semea, herri txikikoa naiz. Eta hiri batean sartzea, hiri deprimitu batean, niretzako beste mundu batera aldatzea izan zen. Prostituzioz beterik zegoen kalea. Denak langileak ziren, jende ona. Baina ni Amistad kalean bizi izan nintzen, euskaldun familia batean. Euskaraz egiten genuen etxean, euskaltzaleak ziren. Urtebete bakarrik egon nintzen Bilbon.

Ondo egokitu zinen, ala oso zaila egin zitzaizun?

Ni gehien harritzen ninduen haxe zen: nik 24 urte, eta niretzako jende zaharra zena aholku eske etortzen zitzaidan. Aholkuak bizitzako edozein gauzaz! Han hasi nintzen bide berri bat ikasten, gero erabili dudana neure bizitzan. Hasi nintzen langile gazteekin lan egiten, JOC deritzon *Juventud Obrera Católica*-n. Ez ziren denak eliztarrak, baina bai borondate onekoak.

Zer zen JOC?

Juventud Obrera Católica, Joseph Cardijn zeritzon apaiz batek Belgikan sortutako mugimendua zen, Ekintza Katolikoaren barruan, langile gazteekin lan egiteko. Ekintza hone-

tan lehentasunak aldatu egin ziren, metodologia aldetik. Ekintzari berari ematen zitzaion lehentasuna. Ez zen lehenengo predikua egitea eta gero ekintza. Ez. Egin dezagun ekintza bat eta azter dezagun ekintza hori, ea zer eragin izan duen. Esate batera, joan gara gaixo batzuei laguntzen, edo antolatu dugu auzoan jai bat; aztertu ea zer alderdi on dauzkan, zer alderdi txar dauzkan... Egin duguna epaitu Ebanjelioak emandako argitan. Ez joan aurretiaz dotrina batekin; joan lagunduz jendeari eta egindakoa aztertu kristau bezala. Ez egin zeuk, burua ateratzeko, baizik eta eginarazi bestei, partaide izan daitezten.

Zer lan egiten zenuten langile gazteekin?

Ez genuen egiten gauza handirik: gaixorik zeudenak ikusterera joan, lantegiko arazo txikiren bat konpondu... Baina egin ahala, jendea hezi egiten zen, pentsaeran, justiziaren alde. Txarto zegoena zuzendu egin behar zen. Hori zen gehienbat. Taldetxo bat sortu nuen, bost edo sei lagunekin. Han urtebete baino ez nuen egin.

Egonaldi luzeagoak egin zenituen gero Zamudion eta Durangon...

Aurretik, Comillasera bidali ninduten, baina han ez nintzen egon hil pare bat baino. Filosofia ikasten joan nintzen. Baina ez nintzen ondo konpondu.

Zer gertatu zen?

Ni apaiz gaztea nintzen, eta hartzen nituen gutunak jesuita arduradunek zabaldu egiten zituzten. Esan nion arduradunari: «Niri inork ez dizkit zabaltzen gutunak». Beste behin eskatu genuen nik eta beste batek herriko zinera joateko baimena, eta ukatu egin ziguten. Errebelde ginela susmatu zuten.

Zeu etorri zinen ala bidali egin zintuzten?

Bidali. Orduan etorri nintzen Zamudiora. Zamudiokoa joan zen Comillasera, nire orde. Bost urte egon nintzen Zamudion. Nire apaiz urterik onenak.

Herri Gaztediren sortzaile

Zamudion bost eta Durangon hiru. Bi herri horietan jarraitu zenuen Bilbon gazteekin hasitako lanarekin?

Beste era batera. Seminarioko irakasle bat, Jose Maria Lareta, gazteen *Acción Católica*-ko omoniera zen Elizbarruti osoan, eta berak esan zidan: «Zergatik ez duzue sortzen Ekintza Katolikoa baserritarren artean, gazte herritarren artean?». Orduan hasi ginen harremanean Don Valentin Zamora Gipuzkoako apaiz batekin, zeren Gipuzkoan bazegoen Baserri Gaztedi, Ekintza Katolikoaren barruan. Lan honetan beste batzuk lehenago hasi ziren Markina aldean, baina Baserri Gaztedi Bizkai osorako geuk ekarri genuen.

Zamudion zeundela?

Bai, Bizkai osorako Baserri Gaztediren omonier edo kontsiliario izendatu ninduten, 1960an. Baserri Gaztedi izena Bizkaian aldatu egin zen, eta Herri Gaztedi jarri genion.

“

Lan honetan beste batzuk lehenago hasi ziren Markina aldean, baina Baserri Gaztedi Bizkai osorako geuk ekarri genuen

”

Zer egiten zuen Herri Gaztedik?

Lehen aitatu dizudan metodoa: ekintza. Esate baterako, egin dezagun ekintza bat herriko jaiak antolatzeko; ekarriko ditugu txistulariak, bertsolariak, pilotariak... Gertatzen genuen jaiak, eta gero aztertu egiten genuen. Zeintzuk izan dira alderdi onak? Jende askok hartu du parte. Eta alderdi txarrak? Jendeak ardoa lar edan du, edo batzuek ez dute parterik hartu. Hiru pauso: ikusi, aztertu eta ekin. Ikusi zer egin behar dugun, aztertu nola egin, eta ekin. Ez zen ateratzen gaztea bere gazte-mundutik. Herri Gaztediren ekintzetan ez zen sartu helburu bezala euskara irakastea, baina Herri Gaztedin euskara hartu genuen hizkuntza bezala, gure azterketak egiteko, gure ekintzak antolatzeko eta *Ekintzaile* izeneko buletin txiki bat ere argitaratzen hasi ginen.

Buletina euskaraz?

Bai. Apaizek ez zuten idazten bertan. Jende gazteak idazten zuen. Horixe zen metodoa: beste batzuek egitea, beste batzuei eragitea.

Euskaraz idazteko gai zineten? Esan daiteke euskaraz alfabetatuta zeundetela?

Zertxobait. Aztertuta geneukan, esate baterako, Joseba Inxaustiren *Euskal-aditza*. Bagenekien apur bat. Hutsuneak ere badaude, orain irakurtzen dudanean, baina ez zegoen txarto. Gainera, guk euskaraz pentsatzen genuen! Hori zen abantailarik handiena. Norberak oldozten eta pentsatzen duenean euskaraz, ez da horren zaila, nahiz eta ortografia aldetik edo ebakera aldetik eragozpen batzuk izan.

Erregimen frankistarekin inoiz arazorik izan zuen Herri Gaztedik?

Hasieran ez zen egon arazorik. Baina denborarekin, arazoa sortu zen. Esate baterako, Gatican. Herririk herri ekin-tza txikitxo batzuk egiten genituen eta, urteko lanaldia amaitzen zenean, batzar handi bat egiten genuen herri batean. Lehenengo urtean Abadiñon egin genuen, eta han elkartu ziren bai Durangaldekoak, bai Mungialdekoak, bai Arratialekoak... Ondo joan zen. Bigarren urtean nahi genuen eratu gauza bera Gatican. Alkatearen baimena behar zen, Abadiñon bezala, baina Gatikako alkateak esan zigun gobernadorearen baimena behar zela. Orduan, gobernadoreak esan zuen: «Bai, baina Espainiako banderarekin egin behar duzue jai». ».

Espainiako bandera, non?

Jaiaren erdian. Kontzentrazioa egin behar genuen, eta erdian behar zen Espainiako bandera. Ez genuen egin jairik, ezta kontzentziorik ere. Zalantzak bazetozen: «Hauek ez dute nahi Espainiako banderarik, hauek separatistak dira...». Guk normalean egiten genituen ekintzak txikiak ziren, ez zeukaten ez inportantziarik ez eraginik gizar-tean;

baina ekintza zabalagoak antolatzen zirenean, kontzientzia bat sortzen zen gazteen artean.

Bizkaia guztian ibili nintzen Herri Gaztediren taldeak sortzen apaizen bidez, metodologiari buruz ikastaroak eratzten... Asko ibili nintzen Bizkaian zehar; Karrantzatik hasi eta Markinara bitartean.

Nola ibiltzen zinen, kotxez?

Ez, motoz. Gipuzkoara ere askotan joan nintzen, hango Herri Gaztedikoengana; hango kontsiliario nagusia Valentin Zamora zen. Madrilen ere egon zen geroago Espainia guztirako kontsiliario. Iparraldera ere joan nintzen, inoiz. [Piarres] Xarritonekin edo [Jean] Hiriart-Urrutirekin egotera. Haiek ere hango Herri Gaztediko kontsiliarioak ziren, *Jeunesse Catholique* edo antzeko izen batekin. Nafarroara ere joan izan nintzen, baina ez dut orain gogoratzen norekin egotera. Alemaniara ere joan ginen Valentin Zamora eta biok Europako batzar orokor batera, astebete, Bochum-era, Holanda ondoan. Zeren gazteen Ekintza Katoliko hau Europako hainbat estatutan zegoen eratuta.

Garai hartan Euskal Herria ezagutu nuen, euskal gazteria ere bai... Hamarkada horretan egin ginen, gehienbat, gizon. Kontzientzia berri bat orduan hartu genuen. Aldi hartan gazteria eliz gazteria zen, baina aldaketa sortzen ari zen gizartean. Aldaketa handi bat.

Aldaketa handi bat zettorrela orain diozu, baina orduan ere sumatzen zenuten?

Orduan ere sumatzen genuen. Gogoratzen naiz liburu bat irakurri nuela, urte hartan frantsesez idatzitakoa: *La crise religieuse des temps nouveaux*. André Desqueyrat zen horren egilea. Berak Frantziako gizartea aztertzen zuen, baina hemen ere hasita zeuden horrelako fenomeno batzuk gure artean. Ez dut uste aldaketa handiagorik izan denik gure gizartean, 60ko hamarkadakoa baino. Aldaketa ikaragarria izan zen gizartean. Eliza aldetik ere bai, kontzilioagatik.

Nola definituko zenuke aldaketa hori? Zer gertatu zen?

Lehenengo eta behin, Europako turismoa hasi zen hona etortzen. Bigarren, garraioak aldatu egin ziren, motoak eta kotxeak ugaritu egin ziren. Horrek eragina ekarri zuen ohi-turetan ere. Esaterako: Bermeo gainean herritxo bat dago: Mañu. Bermeotik bost kilometrora, eta Mungiatik zazpi kilometrora. 60ko hamarkadara arte, gazteria bertan egoten zen. Ez zegoen beste irtenbiderik. Bertan ematen zuen igande arratsaldea, bertan gelditzen zen dantzan, eta bertan egiten zuen jolas. Baina 1961 inguruan, hiru edo lau gaztek motoa erosi zuten. Eta lau mototan bidaia bi edo hiru egiten baidira, hamar edo hamabi gazte aldendu egiten dira gunee horretatik. Hustu egiten da herria. Gizarte txikitxoak, guneeak, apurtu egin ziren. Herrietako arratsaldeko dantza egiteko biderik ez zegoen jada, jendea herri handiagoetara joaten zelako. Hori ez zen ordura arte sekula gertatu. Horrekin batera, jendea lanbide berriak hartzen hasi zen. Eta, horretarako, ugaritu egin ziren institutuak, lanbide eskolak. Ordura arte herriko eskolak, gehien jota, 14 urtera arte izaten ziren. Aldaketa hori bizi izan genuen 60ko hamarkadan. Oraindino krisi politikoa sortu aurretik, sortzear zegoela.

“

Ez dut uste aldaketa handiagorik izan denik gure gizartean, 60ko hamarkadako baino

”

Herri Gaztedi ere desegin egin zen. Nolatan?

Ekintza eratu bati eustea oso zaila zen askatasun barik. Gainera, gure arteko batzuk 18 urterekin hasi ziren gurekin, baina 22-24 urtera heldu ziren... Ekintzaile batek gizartearen ardura hartu behar du, eta ardura bideratzeko gizarteari dagokion eginbehar batzuk egin, esate baterako udaletxetik. Zer bide zegoen horretarako? Zinegotzi aurkeztea. Gure artean sortu dira zinegotziak, baita gero alkate izan direnetako batzuk ere: Lekeition, Zeanurin, Igorren, Mungian... Horiek guztiak Herri Gaztedikoak izan ziren. Herri Gaztedin krisia sortu zen, eta 1967-68an erori egin zen. Metodo hark ez zeu-

kan irtenbiderik. Jendeak gero eta konpromiso gehiago har-
tzen zuen, eta itzarkunde bat zegoen politika aldetik. Ni, kri-
sia sortu zenean, Durangon nengoen, eta erabakita neukan
kanpora joatea. Lovainara joan nintzen 1967an.

**Herri Gaztediren arduradun nagusia izan zinen hasieratik Lovai-
nara joan zinen arte?**

Ez. 1960an egin ninduten kontsiliario edo omonier, eta
1964an kendu egin ninduten. Gero 1966an jarri ninduten
berriro, eta 1967an kendu.

Nork jarri eta kentzen zuen?

Gotzainak. Don Pablo Gulpide zen orduan Bilboko go-
tzaina.

**Jarri eta kentze horiek zer ziren, desadostasunen eta konfiantza
faltaren ondorio?**

Bigarrena, konfiantza faltagatik: uste zuten gu matxino za-
leak ginela, matxinadak egiten genituela... Tartean beste ara-
zo asko sortu ziren. Jada ez neukan bide horretan behar egi-
teko gogorik, aspertuta nengoen eta Lovainara joan nintzen.

**Urte horietan guztietan, aldi berean, irakasle izan zinen Derioko
Seminario Txikian. Zer irakasten zenuen?**

1957an hasi eta 1964ra arte jardun nuen irakasle. Ikasgai
arruntak ematen nituen: latina, matematikak, zientziak...
Baina garai hartan nire ardurarik handiena parrokia bera
izan zen eta, gero, Herri Gaztedi.

Urte trinkoa Lovainan

Zergatik joan zinen Lovainara?

Gehienbat ez nuelako aurkitzen irtenbiderik egoera har-
tan. Beste hitz batzuekin, eskapada egin nuen! [barrez]. Or-
durako banuen atsedena hartzeko gogoia ere, nire pentsae-
rak berriztatzeko...

Zer ikastera?

Teologia. Esperientzia oso interesgarria izan zen Lovainakoa. Han ikusi nuen teologia bera ere aldatzen hasi zela. Irakasle onak izan nituen han: Roger Aubert, historia ematen; Gustav Thils, eklesiologian; Gerard Philips, dogmatikan; Cornelius Jansen, moral gaietan eta beste batzuk. Teologia bera ere irekiagoa zen, ekumenismoa sartzen zen Charles Moeller-en ikas saioetan. Gainera, bertako eztabaida linguistikoa bizi izan genuen; ni, batez ere, flandriarrekin ibiltzen bainintzen.

Zer eratako eztabaida linguistikoa?

Lovaina flandriarren lurraldean dago, baina Unibertsitatean frantsesez egiten zen gehienbat. Protesta ikaragarriak sortu ziren: Lovaina flandriarra dela, eta ez waloniarra. Eta urte gutxira banandu egin zen Lovainako Unibertsitate Katolikoa: flandriarrentzako gelditu zen Leuven zaharra eta Lovaina La Nouvelle ekarri zuten 40 kilometro hegoaldera; beste Lovaina bat, frantsesez.

Zu han egon zinenean frantsesez bakarrik ziren eskolak?

Denetarik egiten zen. Bai latinez, bai frantsesez eta, zertxobait, Jansenek esate baterako, flandrieraz. Nederlande-raz, hobeto esanda. Ikusi egin nuen kontzientzia bizi bat zegoela hizkuntzaren aldetik, Europako lurralde honetan.

Euskaldun gehiago ere izango zen garai hartan Lovainan.

Nire denboran han egon ziren Jose Mari Agirre, *Txato*, orain hil berri dena; Gorka Agirre, EAJko EBBn egon zena, hau ere hil berria; Joxe Mari Mujika, orain Arrasaten dabilena, eta beste asko. Euskadiko futbol ekipoa ere bazegoen. Nik ez nuen jokatzeko. Behin Kongo belgikarrari 5-0 irabazi zioten! Lovainan ezagutu nuen Txillardegia ere. Haren etxean egon ginen. Ni Saint Esprit *collège*-an bizi nintzen, eta Txillardegia guri euskarazko klaseak ematen etortzen zen gure etxera. *Elsa Schelen* idazten ari zen. Orduan ez nekien zer

izenburu zuen, baina banekien nobela hori idazten ari zela, guri zati batzuk irakurri zizkigun eta, klaseetan. Waterloo bizi zen. Urte trinkoa izan zen Lovainakoa.

Frankismoaren kontrako borroka politikoan ari ziren batzuk ezagutu zenituen, beraz, Lovainan. Giro politiko hark ez zintuen erakarri?

Ez. Maiatzean, 1968an, Parisera etorri egin ginen Lovainatik, ea zer giro zegoen. Egun pare bat egon ginen Parisen. Ikusten zen halako aparteko arnasa bat zegoela, matxinada giro bat. Gogoratzen dut De Gaulle entzun nuela irratiz. Ministro Kontseilutik atera zen eta esan zuen: «*La récréation est fini*». Niretzako Lovainak ez du izan eragin handirik, baina kontzientzia berri bat beti hartzen duzu. Urtebete baino ez nuen egin, zeren eta berriro deitu zidaten Derioko Seminarioa etortzeko.

Hara ikastera joan zinena bukatu gabe itzuli zinen?

Bai. Eskabide bat zegoen hemen, larrialdi handiagoa zuten Derioko Seminarioan.

Deriora krisiaren erdira

Zer eratako larrialdia?

Seminarioa apurtzeaz zegoen. Maiatzean sortu zena Franzian estudianteen artean, Seminarioan bertan ari zen sortzen: «Hemen ikasten dugunak ez du ezertarako balio», «guk behar dugu jendearekin hartu-emanean egon», «guk langile-riarekin egon behar dugu», «guk euskal herrietara joan behar dugu»...

Seminario Nagusiko ikasleen eskaerak ziren horiek?

Ordura arte dena ematen zen Seminario barruan, baina esparru hau estu gelditzen zen. Seminariotik jende asko ateratu zen, bide berriak eskatzen zituzten... Eta, ez dakit aurre-

ra zaleak ei ginelako edo, ekarri gintuzten gu: Mikel Saez de Cabezón eta ni, Seminario Nagusira.

Joera berrikoekin hurbilago zeundetelako?

Beharbada, bai.

Eta zer topatu zenuen Derion?

Nahaste ikaragarria. Etorri eta berehala, apaizek, gure lagunek, batzuk Herri Gaztedin eta JOCen kontsiliario izandakoak, okupatu egin zuten Seminarioa. 60 apaizek Derioko Seminarioa okupatu egin zuten.

Zer aldarrikapenekin?

Sartu ziren bertan, eta hemen ez zegoen bizitza normala egiterik. Protesta bat zen, gehienbatean, isunak jarri zizkietelako apaizei, gotzainak ez zirelako irten euren alde. Berehalako erantzun bat eskatzen zioten gotzainari. Lehenago ere okupatu zituzten Bilbon Gotzaindegiko bulegoak, baina ekintza handiagoa egin zuten Derioko Seminariora sartu zirenean.

Kutsu politiko handiko ekintza izan zen okupazio hura, frankismoaren aurkakoa eta Elizako hierarkiaren jarreraren aurkakoa. Zer iritzi zenuen garai hartan protesta haiei buruz?

Garai hartan ez nuen iritzi argirik. Eskabideak legezkoak izango ziren, baina okupazio-ekintza bera ez nuen ikusten bidezko. Inoren ardurapean zegoen eliz erakunde bat, bai menik gabe eta bat-batean desorekatzea, ez zen bide egokia gauza onik ateratzeko.

Tartean ziren Gogor taldekoak, ezta? Julen Kalzada, Alberto Gabika, Xabier Amuriza, Josu Naberan eta abar.

Eta beste batzuk. Zaharragoak ere bai.

Zer moduz konpondu zinen gatazka horren erdian?

“

Lovainatik etorri eta berehala, 60 apaizek Derioko Seminarioa okupatu egin zuten

”

Ez ondo. Benetan larri egon nintzen. Orduan proposatu nuen okupazioa bera aztertzea, guk erabilitako metodologi-az: ikusi, epaitu, egin. Baina egoera nahastu egin zen. Gurpide gotzaina gaixorik zegoen oheratuta, minbizi handi batekin; gainera, berak zigortu egin zituen apaizak: *suspensio a divinis!* Hau da, ez daukazue hemendik aurrera esku-biderik ez meza emateko, ez predikuak egiteko... Bizkaiko Elizan egon den krisirik handiena orduan izan zen. Urriaren azken egunetatik azarora arte izan zen, 1968an.

Nola bideratu zen krisia?

Lehenengo eta behin gotzaina bera hil egin zelako, minbizi-az. Eta, gero, Don Jose Maria Zirarda administradore izendatu zutelako. Zirarda gotzaina zen Santanderren, eta hemen- go administradore izendatu zuten, hango ardura utzi gabe.

Zirardak joera irekiagoa zuen, ezta?

Jakina. Hark ireki zituen atea eta leihoak. Jaso egin zituen apaizen zigor guztiak; izendatu zuen Derioko Seminariorako erretore berria, Mikel Saez de Cabezon, ni laguntzaile nintzela; eta eratu zuen beste era batera Seminarioko diziplina. Barnetegian bizitzeko baldintza kendu zuen, eta seminaristak kanpora atera ziren, etxebizitzetan bizitzen jarri ziren, taldeetan. Gauzak baretu egin ziren.

Hurrengo urtean ekintza gogorragoa egin zuten, gose greba sonatuarekin, Gogor taldeko bostek, lehen aipatuko laurek eta Nikola Telleriak. Eta kartzelan bukatu zuten, zigor gogorrekin. Nola bizi izan zenituen gertaera haiek?

Zuk nola uste duzu? Kezkaz eta arduraz! Politika eta gobernatze aldetik irtenbide gaitzeko egoera bizi izan genuen frankismoaren azken urteetan. Egoera larri horren ezaugarriak ziren zuk aipatutako apaizen gose greba, agintari-ek ezarritako isunak apaiz askori egindako prediku edo protestengatik, eta, batez ere, apaizentzako ireki zen Zamorako espetxe berezia.

Ikastaroaren hastapenak

Lovainatik Deriora itzuli zinenerako, euskaraz ezer egiten zen Seminarioan?

Seminario Nagusian Karmelo Etxenagusiaren borondatez eta eraginez hasi ziren euskarazko eskolak. Euskaldunei ikasketa batzuk ematea bultzatu zuen. Hor ikasle izan zituen, esate baterako, Mikel Zarate, Xabier Amuriza, Lontzo Zugazaga... Gogoan dut garai hartan [Aldous] Huxleyren *Un mundo feliz* irakurri nuela, eta Amurizari esan niola ea euskaratuko zuen. Eta euskaratu egin zuen. Aurrelariak ziren, ausartak. Nire ustez gehiegi! [barrez]. Baina zintzoak. Etxenagusiaren eskutik euskaraz ikasitakoak dira; 1960-61 inguruan hasi zen euskara irakasten. Bera etorri berri zegoen Comillastik lizentzia eginda. Zuzenbide Kanonikoa irakasten zuen hemen Derion, eta aldi berean, euskara eskolak ere ematen zituen.

Alfabetatze klaseak ziren?

Alfabetatze bidean, baina alfabetatze hutsa baino gehiago zen. Etxenagusiak beti eman zien lehentasuna idazleei, literaturari. Beraren eskutik zaletu egin zirela bere ikasle batzuk euskararekin uste dut. Seminario Txikian ere hasita zeuden euskarazko eskolak.

Nor hasi zen?

Jose Mari Ituarte, ondarroarra, hasi zela uste dut *Xabier-txo* metodoaz. Euskaldun zirenei ematen zitzaien eskola. Eta gero, Mikel Zarate. Seminario Txikian 1963-64 ikasturtean hasi ziren euskarazko eskolak.

Udako Euskal Ikastaroa nondik nora sortu zen?

Ni Seminario Nagusira etorri nintzen 1968ko urrian, 1969an ez zen eman udako ikastarorik, 1970ean egin genuen lehen ikastaroa. Ikastaroa sortzeko arrazoia zera izan zen: gerraosteko abade euskaldunek ez dute izan aukerarik eus-

karaz alfabetatzeko seminarioan ikasi zuten aldian. Hutsune hori betetzeko, ikastaro bat eratu genuen astebeterako. Abadeentzako zen, bereziki, eta nahi bazuten, baita irakasle ziren mojentzako ere: 22 apaiz eta bi moja etorri ziren; hobeto esanda, etorri ginen, nik ere egin bainuen ikastaro hori.

Nortzuk izan ziren irakasle?

Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarate. Zarate orduan euskal liburu bat idazten ari zen, Bizkaiko idazleei buruz, eta ikastaro horretan amaitu zuen. Hurrengo urtean atera zen, Zirarda gotzainak emandako diruaz. Etxenagusiak eman zituen lehenagoko ikasketa batzuk, oinarrizkoak: idazketa, deklinabidea eta horrelako arauak. Jendea pozarren gelditu zen. Aztertu genuen geure metodologiarekin aste hori, eta esan genuen: datorren urtean berriro! Eta, astebete gutxi zela eta, bi astekoa egingo genuela. Bi asterako egin genuen hurrengo urtean, berriro Etxenagusia eta Zarate irakasle zirela. Uste dut bigarren urtean Lontzo Zugazaga ere sartu zela laguntzaile edo irakasle.

Bi maila jarri ziren bigarren urtean: lehenengo maila eta bigarrena. Metodoa seminariotik sortutakoa zen. Lehentasuna ematen genien idazleei, irakurketari. Ikastaroa euskaldunentzat egin genuen, zekitenentzat, ez euskara ikasi nahi zutenentzat. Metodologia horretara zegoen bideratua: idatz ezazu zeuk pentsatzen duzun moduan, idatzi beldur barik, eta zuk idatzi duzunaren azterketa egin ondoren, ikusiko dugu zer zuzenketa egin behar den. Zuzenketak egiteko hartuko duzu gramatika. Lehenengo ekintza bera da, eta gero arauak. Araua bigarren mailakoa da. Bide horretatik, arrakasta handia izan zen, batez ere lehenengo hamarkadan.

«Dakigunetik ez dakigunera»

Zergatik, zure ustez?

Bizkaiko jende asko beldurrez zegoen euskaraz idazteko. 1968an Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarra egin zuen.

Orduan, euskara batua jartzen zen beste euskara bat balitz bezala. Jendea beldurtu egin zen: «Euskara berri bat ikasi behar dugu?». Gure irizpidea beti izan da beste hau: ez da beste euskara bat. Euskara bera da, eta baturanzko bidea egin behar du gure euskarak. Guk, gipuzkoarrek eta lapurtarrek baino bide gehiago egin behar dugu, gipuzkerak batuaren antz handiagoa duelako, batez ere aditzean, eta lapurterak ere antz handiagoa duelako, batez ere literaturan. Bide hori hartu genuen alfabetatze lanean.

Guri alde guztietatik eman digute! Bai batuzaleek eta baita besteek ere! Zergatik? Handik gutxira, 1975ean, onartu genuen Euskaltzaindiaren ortografia ere, *h*-a eta guzti. Gure bidea ez da izan txarra. Ikusi gure ikastaroek zenbat urte iraun duten. Gure artetik igaro dira hamaibost bat mila bizkaitar; hemen alfabetatu dira.

“

Guri alde guztietatik eman digute! Bai batuzaleek eta baita besteek ere!

”

Orain egiten duzun irakurketa hori, bizkaieratik baturanzkoa dela zuen bidea, orduan ere hala egiten zenuten?

Jakina. Gure leloa hasieratik izan zen: *dakigunetik ez dakigunera*. Zer dakigu? Hitz egiten dakigu. Dakigu amak esaten duen legez esaten. Zer ikasi behar dugu? Ikasi behar dugu euskara landu bat. Ikasi behar ditugu beste euskara mota batzuk. Ikasi behar dugu euskara estandarra. Hori ez dakigu. Baina has gaitezen dakigunetik. Zure amaren euskara ondo egiten baduzu, eta ondo idazten baduzu, %90ean euskara batua egingo duzu. Ez da beste hizkuntza bat. Hizkuntza bera da. Hori izan zen gure apustua.

Gure pentsaeraren oinarria hau izan da: idatzia ez da hizkuntza, idatzia hizkuntzaren errepresentazioa da. Herri Gaztedin nengoela, euskara batuaren aldeko amorratua izan nintzen, baina konturatu nintzen nire herrian, Zeanurin, euskara biziago zegoela Axularren liburuan baino. Zergatik? Axularren liburuan ere euskara ederra dago, ez dago gehiagotzerik. Baina nire gaurko herrian, euskara egiten ari

dira: euskaraz maite dute elkar, euskaraz egiten da lan, euskaraz haserretzen dira, euskaraz bizi dira. Ahozkoa da bizia. Konbentzimendu antropologiko hori izan dugu. Guk ia hasieratik onartu genituen Euskaltzaindiaren arau guztiak, baina ezin dugu baztertu bizirik dagoen euskara.

Zuen metodologian eredurik bazenuten, ala hemen sortu zen?

Hemen sortu zen alfabetatze metodo hori. Deskubrimendu bat ere ez zen; berez etorri zen. Gehienbatean, guk garrantzi gehiago eman diogu literaturari berari, eta lehenen Bizkaian aspaldi idatzi izan den literaturari. Ikastaroa hedatu eta goragoko mailetara iritsi zenean, esan genuen: bizkaiera egingo dugu oinarrizko mailetan eta hasiko gara beste euskalkien morfologiak ikasten goragoko mailetan: eman go dugu euskara diakronikoa ere, eta euskal literatura orokorra. Gabriel Arestiri buruzko lehenengo azalpenak, Aresti bizi zela, Etxenagusiak egin zituen hemen Derioko Ikastaroan. Eta Txillardegiri buruzko lehenengo entseguak hemen azaldu ziren. Ez zen euskal idazlerik baztertzen. Apustu ona izan zela uste dut.

Hemen izan ditugu euskaldun peto-petoak, benetan euskaraz pentsatzen zutenak: idazle on batzuk ere atera dira. Baina ez dago idazle onik, ez badago askatasunik, eta askatasuna behar da baita euskara bera askatzeko eta garatzeko ere! Hizkuntza bat barrutik hazten eta hedatzen delako.

Filosofia horrekin, batuari buruzko eztabaida liskartsu hura nola bizi izan zenuten?

Guk ez genuen ezer eztabaidatu. Esan genuen: geurea egingo dugu, sar dezagun ziri bat, euskara bultzatuz. Beste lorpen bat izan zen Ikastaroaren barruan euskal mundu bat egitea. Hemen dena egiten zen euskaraz, ikasgeletan nahiz pasilloetan. Askok eta askok kanpotik zekarten ohitura, erdara egitekoa, alde batera utzi zuten, eta hasi ziren normalean ikaskideen artean euskaraz egiten, bai jolasean, bai elkarrizketan... Hori izan zen lorpenik handiena.

Sentitzen duzu orain badagoela euskalkiekiko sentiberatasun bat, eta 1970eko eta 1980ko hamarkadetan gutxietsi egin zirela?

Orduan beharrezkoa zen batuaren ikurra goratzea. Hizkuntza batek iraun nahi badu, ofizialtasuna lortu behar du, eta horretarako hizkuntza estandar bat behar du. Hori horrela gertatu da mundu guztian. Esaten dute Irlandako gaelikoari kalterik handiena ekarri diona izan dela hizkuntza estandar bakar bat sortu ez izana. Hori guztia kontuan harturik, beharrezkoa zen batua ezartzea. Baina helburua eta eginbeharra ez ziren horrela azaldu: batuak esan nahi zuen, orduko denboretan, eta denen iritzian, bizkaiera baztertu egin behar zela. Ez [Jean] Haritxelharren iritzian, ez [Luis] Villasanteren iritzian, baina bai bigarren mailako jakintsu batzuen iritzian. Eta hor egin ziren gehiegikeria batzuk.

Zer, adibidez?

Esate baterako, nire herrian, herriko jai egitaraua batuaz atera zuten. Nire osaba dendariak esan zion egin zuenari: «Hik norentzako idatzi dozak honeek? Bertokoentzako idazten dok bertokoek ulertzen ez dutena?». Zentzua aurretik ipini behar da bide berri bat hartzen denean. Gure lema horrela zen: *Dakigunetik ez dakigunera, Hizketa bizitik hizkuntza idatzira*, eta *Bizkaieratik batura*. Metodologia pedagogia batean oinarritzen zen. Ez genuen irakatsi nahi gure euskara batua, erbesteko hizkuntza bat balitz bezala.

Erakunde bezala, zer moduzko harremanak izan dituzue Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak batuari buruzko eztabaida gogorrenen garaian?

Labayruren laguntzaileen artean [Eusebio] Erkiaga euskaltzaina zegoen. Eta ohorezko laguntzaileak ziren Jose Miguel Barandiaran, Manuel Lekuona, Juan Ramon Urkijo, Justo Garate... Hartu-emana beti izan dugu euskaltzain askorekin. Hona Udako Ikastarora ekarri ere egin ditugu hitzaldiak ematen Villasante, San Martin, Satrustegi, Xarriton... Gure mintegi eta jardunaldietara gonbidatu ditugu Juan

Mari Lekuona, Alfontso Irigoien... Ez ginen txarto konpon-
tzen gorengo mailako arduradunekin. Arazo gehiago geni-
tuen tartekoekin, bizkaiera abade batzuen kontua zela esa-
ten zutenekin.

**Bizkaiera estandarra ere egin gabe zegoen, Ikastaroarekin eta
argitalpenekin hasi zinetenean.**

Parte hartu dute gure irakasle batzuek bizkaiera estanda-
rra egiten, Euskaltzaindiaren laguntasunarekin, gainera. Hi-
tzarmen bat egin zen, lantaldeak egin ziren, eta bizkaiera
estandarra atera da. Baina guk oraindino mantentzen dugu
batua beharrezkoa dela, bere lekuetan. Irakaskuntzan, irra-
ti saio orokorretan, edo sortzen ari den hizkuntza berrian
batua behar da.

**Urteen poderioz, batuaren eta euskalkien arteko orekaren ikus-
pegia hobetu egin dela uste duzu?**

Bizkaierak ere gauza asko eman behar dizkio batuari. Ez
da bakarrik batua ezartzea goitik behera. Bizkaieraren bera-
ren aberastasunek batura joan behar dute, beste euskalkie-
nek ere joan behar duten moduan. Oraindino
euskararen aberastasun guztia bildu barik da-
go, eta are gehiago, literaturan txertatu barik.

“

Bizkaieraren
beraren aberasta-
sunek batura joan
behar dute, beste
euskalkienek
ere joan behar
duten moduan

Zazpiehun ikasle

**Hogeita bi irakaslerekin hasi zenuten Udako Eus-
kal Ikastaroa. Zer bilakaera izan zuen urterik urte?**

”

Bigarren urtetik hasita, beti bi asteko ikasta-
roa izan dugu udan. Uztaileko lehen astelehe-
nean hasten ginen beti. Hirugarren urtean hiru
maila jarri genituen. Gerora, 1975ean, kontu-
ratu ginen beharrezko zela maila bat gehiago
ezartzea. Orduan, bigarren maila bikoiztu egin
genuen: eta hiru maila sortu ziren oinarritzkoak. Laugarren
mailan sartzan ginen jada gipuzkerako eta batuko morfolo-

gian, eta gipuzkerazko idazleekin. Gerora sortu genuen bosgarren maila bat, Iparraldeko euskara eta idazleak, eta euskara klasikoa aztertzeko.

Hasieran apaizentzat eta moja irakasleentzat izan zen Ikastaroa. Noiz zabaldu zen?

Bigarren urtean ere izan ziren apaizak, baina hirugarrenetik hasita, irekia izan zen. Ikastoletako mugimendua ere bazetorren, 60ko hamarkadan hasi eta 70eko hamarkadan ugaritu egin zen, eta ikastoletako andereñoak etortzen hasi ziren. Andereñoz bete zen Ikastaroa, Bizkaiko andereñoz batez ere. Gipuzkoatik eta Nafarroatik ere etorri ziren bazuk. Iparraldetik ere bai banakak.

Hirugarren urtetik aurrera?

1970eko hamarkadan andereñoentzako izan zen Ikastaroa gehienbat. Ordukoa izan zen garai onenatarikoa. Garai hartan hasi ziren ikasleak, ez bakarrik idatzitako literatura aztertzen, baita zaharrengandik ahozko literatura biltzen ere.

Garai hartan zein gehiagok eskaintzen zituen zuen antzeko ikastaroak?

Oraindik ez zegoen HABErik. Hor Deustuan zegoen Hizkuntzen Eskola Ofiziala, hori ere guk hornitu genuen irakaslez hasieran. Gure irakasleak joan ziren bertara: Jose Mari Irazola, Jesus Eguzkitza, Belen Olaetxea, Mikel Zarate... Gure titulazioa ere hortik dator.

Nolatan lortu zenuten tituluak eman ahal izatea?

Gernikako Estatutuaren garaia baino lehenago, orduko Administrazioetik egiaztagiri bat emateko baimena lortu zuen Udako Euskal Ikastaroak euskara irakatsi eta titulu emateko. Ez dakit zehatz-mehatz zelan izan zen, baina Ikastaroa egiten zutenei ematen genien egiaztageria, adierazteko gai zela euskara irakasteko. Gero sortu zen HABE, eta geroa go ugaritu ziren euskaltegiak.

Ikasleak ugaritzen ziren neurrian, irakasleak ere beharko zenituzten. Nondik ateratzen zenituzten?

Ikastaroaren bost mailak amaitzen zituzten ikaslerik one-nak irakasle bihurtzen genituen. Euskara landua zekitenak, beste karreraren bat bazeukaten, bidaltzen genituen lehenengo mailara irakasle. Birziklatze bat geneukan geure artean. 1985ean uste dut jo genuela goia: 700 bat ikasle egon ziren hemen Derion, Udako Euskal Ikastaroan. Nik uste nuen epe laburrerako izango zela Udako Ikastaroa. Baina oraindik ere irauten du. Gerora ikasleen profila aldatu egin da. Ikasleak kaletarragoak dira, euskara badakite, baina lehen hamarkada eta erdikoek baino hizkera ahulagoa, erdaldunduagoa. Gaur egungo ikasleen joera praktikoagoa da, edo EGA, oinarritzko agiria, edo Administrazioak eskatzen duen hizkuntza eskakizun mailaren bat gainditzera zuzendua, batez ere.

Etxenagusia eta Zarate aipatu ditugu. Gerora irakasle izan direnen artean, nor gehiago nabarmenduko zenuke?

Hirurehundik gora izan dira irakasleak gure ikastaroetan berrogei urteotan zehar. Haietatik askok irakaskuntzan jarraitu dute. Beste batzuek herri administrazioan, eskoletan, ikastoletan, institutuetan, unibertsitateetan, komunikabideetan eta abar.

Euskaltzaindian bertan gaur egun hiru dira euskaltzain osoak gure irakasle izandakoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Adolfo Arejita Labayru Ikastegian euskara arloa zuzentzen duena eta Joseba Lakarra, 80ko hamarkadako ikastaroetan gurekin lan egin zuena.

Baina badira idazle, ikertzaile, itzultzaile, kazetari, esatari edo bikoiztaile ezagun bihurtu direnak ere: Lontzo Zugazaga, Jabier Kalzakorta, Jesus Eguzkitza, Igone Etxebarria, Mirren Agur Meabe, Jesus Mari Agirre, Jesus A. Etxezarraga, Unai Elorriaga, Lourdes Unzeta, Jose Mari Pitarke, Bingen Zupiria eta beste asko eta asko.

Eta zu, beti antolatzaile?

Bai. Hori zen nire zeregina: irakasleak aukeratu, gaiak eta programak ezarri, eskolak zein gelatan eman behar ziren ikusi, gutunak bidali, eskola-apunteak sasoz atera... Irakasle ere egin izan dut inoiz, literatura eskolak eman ditut bigarren mailan, bost bat urtetan. Baina ez zegoen astirik aldi berean irakasle eta zuzendari izateko. Gero, hutsuneak bete ere bai. Baina gehienbatean, hori zen nire ardura: Ikastaroaren zuzendaritza.

Deriotik beste herri batzuetara ere zabaldu zenuten Ikastaroa, ezta?

Udako Ikastaro bat egiten bazenuen urtero, amaitzeko bost urte behar zenituen. Eta batzuek eskatu zuten epe hori laburtzea. Bide bat aurkitu genuen: udan Derion maila bat egin ondoren, urtean zehar beste maila bat egitea, Deriotik kanpo. Bilbon hasi ginen urtean zehar Ikastaroa ematen, eta gero beste herri batzuetara zabaldu zen: Zeanuri, Mungia, Durango, Bermeo, Algorta, Gernika, Ondarroa, Galdakao, Lekeitio, Markina... Udako Ikastaroko irakasle berberak ziren gehienbat; hemengo metodo berarekin irakasten zuten, hemengo testuekin, eta hemengo Idazkaritzan gordetzen ziren ikasle guztien kalifikazioak. Horrela bi urte baino lehenago posible zen oinarrizko hiru mailak betetzea eta hiru urte barruan bost urteko ziklo osoa egitea. Derion egiten baldin bazen lehenengo maila, bere herrian ematen zuten urte barruan bigarrena, eta Deriora etortzen ziren hirugarrena egiten.

Zer neurritan ziren ikasketa ofizialak?

Bizkaiko Irakaskuntza Ordezkaritzak onartu zituen 1976an ofizialki gure ikasketak. Jaurlaritza finkatu zenean parekatu egin ziren guk ematen genuen titulua eta EGA. Geroago, Administrazioa oso jeloskorra denez, EGA azterketa egiteko gaitasuna eman ziguten, baina edukiak eurek eratuta. EGA agiria ateratzeko zentro homologatu gara ordutik. Gaur egun ere ematen ditugu EGA prestatzeko ikastaroak, eta geuk eratzen ditugu EGA azterketak.

Ikastaroaren hastapenetan ikasmaterialik ez zenuten edukiko. Zerekin hasi zineten?

Ez zegoen euskara emateko ikasmaterial askorik. Joseba Intxaustiren *Euskal-aditza* liburuarekin hasi ginen. Baina berehala geu hasi ginen, geure irakasleak, eskoletarako materialak prestatzen. Lehenengo, multikopiaz: deklinabidea, idazkera, aditza, literatura... Eta gero liburu modura argitaratzen. Literatura arloan, lehenengo Bizkaiko literatura, gero Gipuzkoakoa, gero Iparraldekoa. Lehenengo esperimentuak eskolan bertan egiten genituen: multikopiaz atera, eta saiatu ea nola zen erabilgarria. 1975ean, Leopoldo Zugazaren laguntasunaz hasi ginen liburuak ateratzen, berak argitaletxe bat baitzeukan Durangon. Mikel Zarateren *Euskal deklinabidea* izan zen lehenengoa. Zorte handia izan genuen, gainera: Leopoldo Zugaza Bizkaiko Aurrezki Kutxako Kulturako arduradun egin zuten handik laster, eta berak babestu zituen gure argitalpenak. Gure liburu asko argitaratu izan dira bide horretatik. Aurreratxoago Labayru Ikastegiak berak atera zuen bere bildumatxoa, Derioko Udako Ikastaroa, eta hor hasi ginen ikas liburu eta ariketa liburutxoak ateratzen.

“

1975ean, Leopoldo Zugazaren laguntasunaz hasi ginen liburuak ateratzen, berak argitaletxe bat baitzeukan Durangon

Elizaren babesa garrantzitsua izan zen hasierako urte haietan?

”

Mesede ere egiten genion Derioko Seminarioari, zeren ia hutsik zegoen eraikin handi hau. Udako Ikastaroetan bete egiten zen goitik behera. Beste inoiz baino jende gehiago. Zure galderara etorritz, Elizbarrutiaren babes hori beti izan dugu gure gotzainen partetik, Don Jose Maria Zirarda, Don Antonio Añoveros eta, batez ere, Don Juan Maria Uriarte eta Don Luis Maria Larrearengandik... Hasieran ez genuen beste laguntzarik. Eta laguntza, diruz baino gehiago, adorea emanaz jaso genuen. Ez zen gutxi, Ikastaroa onartzea. Libre edukitzen genuen etxe guztia, nahiz eta zerbi-

tzuak ordaindu: hau da, janaria, logelak, argiak... Gainera, Seminarioan irakasle ziren batzuk Udako Ikastaroan ere irakasle izatera heldu ziren, eurek ere Ikastaro osoa egin eta gero. Bizkaiko abade askok egin dute gure Ikastaroa.

Euskal Ikastaroarekin hasi zineten garai bertsuan, Bilboko Herri Irratian euskarazko aurreneko emisioak ere bultzatu zenituzten, ezta?

Euskarazko irratsaioen lehen esatariak Juan Mari Iraola-goitia eta Inma Gallastegi izan ziren, 1973ko udagoiengan. Handik lasterrera ekintza hori bultzatu zuten Adolfo Arejita, Jesus Etxezarragak, gaur Bikario Nagusi den Angel Maria Unzuetak eta Jesus Eguzkitza *Eguzki*-k. Ikastaroko irakasle berriak ziren, gazteak, eta haiek hasi ziren Elizbarrutiko irratian euskaraz egiten. Eta ni haiekin. Saio luze bat ere egin nuen etnografiaz, 30 irrati saio, euskaraz. 1973-75 urteetan izango zen. Egia osoa esateko, euskarazko irrati saioak egiteko lehen ideia beste abade batena izan zen: Julian Olazabagarena. Uste dut orduan irratiko zuzendari [Jose Miguel] Azpiroz zela, nafarra. Gerora sortu genuen Bizkaiko Elizbarrutian Bizkaia Irratia, euskaldunentzat; baina hori 1985ean izan zen.

Parte hartu zenuen Bizkaia Irratiaren sorreran ere?

Iritzietan bai. Kudeaketan, ez. Gehiago hartu dut parte meza ematen euskaraz, Bizkaia Irratirako. Hamabost urte egon naiz meza ematen Begoñako santutegitik.

Euskal Biblioteka osatzen

Zer izan zen lehenago, Udako Euskal Ikastaroa ala Euskal Biblioteka?

Ikastaroaren lehenengo urtean konturatu nintzen euskal biblioteka baten beharra genuela. Ikasleek eta irakasleek galdetzen zuten: «Liburu hau non aurki daiteke?». Ikerketa bat egin nahi baduzu edo testu bat argitaratu nahi baduzu,

erreferentziak eduki behar dituzu, eta hasi ginen biblioteka hau eratzen. Euskal liburu multzo bat Seminarioko biblioteka nagusiaren barruan zegoen hasieran. Don Andres Mañarikua zen Derioko Seminarioko liburuzaina. Bizkaian izan dugun historiagilerik onenetarikoa, *Historiografía de Vizcaya* obraren egilea. Esate baterako, Kulixka Sorta osorik zeukan, baina ezkutuan; Antonio Zabalaren Auspoa bilduma ere bai, baina ez leku batean, beste libururen artean sakabanatuta baino.

Nahita zeuzkan euskal liburuak sakabanatuta?

Berak esaten zidan: «*No te fíes, no te fíes...*». Nik horiek euskal liburu guztiok bildu egin nituen. Eta egokia zen leku batean antolatzen hasi nintzen. Irakasleentzako batez ere, euskal biblioteka bat egiten hasi nintzen.

Zer urtetan hasi zinen biblioteka antolatzen?

1970ean. Gero, zorte handiak eduki ditugu. Nire osaba apaiza, Gabirel, 1976an hil zen. Liburutegi ederra zeukan, zortzi mila liburu, asko euskarazkoak, eta hona etorri ziren. Don Juan Kruz Ibargutxik ere, nire osaba baino zaharragoa, liburu asko zeuzkan euskaraz, eta haiek ere hona etorri ziren. Gero, Leopoldo Zugaza bitarte zela, Patrick de la Sotaren liburuak etorri ziren: etxe bat saldu beharra zeukan egun batetik bestera Miarritzen, ez zekien zer egin han zeuzkan liburuekin, eta Zugazak esan zion guk hartuko genizkiola. Joan ginen, eta bost tona liburu ekarri genituen. Denak euskal gaiez idatzitakoak.

Bost tona? Zenbat liburu dira horiek?

Hogei bat mila. Batzuk liburu paregabeak ziren.

Biblioteka honek kanpotik jaso duen ondare handiena?

Bai. Biblioteka hornitzea hasieran zaila da, baina behin biblioteka handi egiten denean, bertan diren liburuek deitu egiten diete beste liburu batzuei. Izan ditugu beste emaitza

on batzuk ere. Erosi ere egin ditugu: ez diru asko ordainduz. Bat, Eduardo Urrutiaren biblioteka, gerraurrean egindakoa: ez ziren 800 liburu baino, baina sartu ziren... oina zapata eder batean sartzen den bezala. Oso-osoan. Gero Labayru Ikastegiaren laguntzaile direnek ere eman dizkigute liburu edo aldizkari-bilduma ederrak.

Zenbat liburu ditu orain bibliotekak?

Ez dakit katalogoko zenbat erreferentzia izango diren bertan, baina bolumenak 65.000 edo 70.000. Biblioteka bat egitea ez da liburuak biltzea eta pilatzea; proiektu intelektual bat da. Liburuak aukeratu egin behar dituzu, gai-hutsu-neak bete, iturriak bilatu. Guk garrantzi handia aldizkariari eman diegu. Zergatik aldizkariari? Lehenengo eta behin, euskaldunok ez dugulako asko argitaratu, eta argitaratu duguna tarteka argitaratu dugu. Bilaketa horretan pozarren lagundu didate. Gure ikasle batek (J.F. Zamakona), seminarista zela, esan zidan behin: «Bilboko Ciudad Jardín auzoan txalet bat botatzera doaz, eta konturatu naiz euskarazko paper batzuk daudela ganbaran». Joan ginen, eta paperak zeuden kiribilduta. Ekarri genituen, sailkatu genituen... Badakizu zer zen? *Argia* astekaria ia osorik. Gerra aurreko *Argia* (1920-1936). Horrela etorri dira beste aldizkari batzuk. Poz handia ematen didate horrelakoek.

Ondare hori hor ikusteak?

Bai. Orain belaunaldi berri bat sartu da bibliotekaren arduetan. Dena mekanizatu dute, nik ez dut ulertzen askorik teknika berrien gainean: gaur egun Interneten daukazu Euskal Biblioteka honen katalogoa Labayru Ikastegiaren izenpean. Liburuxkarik txikienak, esku-orriak, kartelak, egitarauak... eskuizkribuak ere biltzen dugu. Dokumentazio zentroa eratu dugu. Hitzarmen bat ere egin genuen Eusko Jaurlaritzarekin. Guk egindako fitxa katalogafikoak Jaurla-

“

Biblioteka bat egitea ez da liburuak biltzea eta pilatzea; proiektu intelektual bat da

”

ritzari ematen dizkiogu, beste biblioteketan sartzeko. Eta harreman handia izan dugu beste biblioteka batzuekin, batez ere Lazkaokoekin, Belokekoekin eta Gasteizko Sancho el Sabio-koekin. Bikoiztuta dituztenak guregana ekarri, eta guk bikoiztuta ditugunak haiei eman, eta horrelako trukaketak.

Elizaren babesean

Udako Euskal Ikastaroa martxan jarri zenuten, Euskal Biblioteka osatzen ari zineten, aurrerago hitz egingo dugu ordurako hasita zenituzten etnografia lanei buruz... Eta, halako batean, lan ildo horiek guztiak erakunde bakar baten babesean biltzea erabaki zenuten. Zergatik?

Ekintzak pertsona bat edo biri bakarrik lotuta badaude, pertsona horiek aldatzen edo desagertzen direnean ekintza horiek galdu egiten dira. Ekintza batek iraunkorra nahi badu izan, eta nahi badu ekin, ez norberaren iritzietatik bakarrik, baina beste batzuen iritzietatik ere, erakundearen babesa behar du. Erakundeak beharrezkoak dira lan iraunkorrrak egiteko. Gainera, ekintzak ugaritu ahala gastuak sortzen dira, eta diruak bilatu behar dira, argitaratu egin behar da... Horri guztiari erantzuteko, erakunde bat sortzeko asmoa geneukan. Ez zen nire asmoa bakarrik. Nire inguruko lagun askok ere asmo hori zeukaten: euskal kulturaren garapenerako erakunde bat behar zela gure artean. Eta patronatu bat sortu genuen: Elhuyar patronatua. Kontuan hartu oraindik Francoren aldian geundela.

Horrek ez dauka zerikusirik gaur egungo Elhuyarrekin, ezta?

Ez, ezer ere ez.

Nortzuk sortu zenuten?

Gero Labayru Ikastegia sortuko genuenetako batzuek: Txomin Bereziartua, Luis Benito del Valle, Jose Mari Mujika, Juan Jose Aspuru, Juan Beitia, Jon Arrieta eta neu ibili

ginen bilera haietan. 1973an egin genituen patronatua sortzeko lehen bilerak, eta 1976ra arte iraun zuen. Baina ez zegoen ekintza programarik. Izenez bakarrik sortu zen Elhuyar patronatua.

Labayru Ikastegia 1977an sortu zenuten. Azaldu nola.

Gure lagunen artean baziren norbaitzuk, *scout* taldeko izandakoak. Hauek hartu-eman handia zuten Kataluniako aitzindari batzuekin, eta behin etorri ziren Bilbora guk eskatuta fundazio biren idazkariak: Fundació Bofill eta Fundació Martorell. Eurekin izan genuen elkarrizketa luzea, erakunde bat sortzeko egin behar zen bidez. Ondoriotzat atera zen bide bi zeudela: bata, erregistro zibiletik egitea, eta bestea, Eliza barruan egitea fundazio kanonikoa. Horiek ziren aukerak. Gure artean denetik zegoen. Batzuek ikusten zuten Elizak ez zuela bide handirik emango. Baina esperientzia on bat bageneukan: Zirarda gotzainak babestu egin zuen Derioko Ikastaroa eta babestu baita lehenengo euskal argitalpenak eta guk berari azaldutako asmoak ere. Eta Añoveros gotzainak ere begi onez ikusten zuen euskal ikastaroan egiten hasi ginen lana. Etorri ere egin zen behin Ikastaroa ikusten. Egun hartan berak esan zidana ez dut ahaztu: «Bakerako bidea egiten duzue euskara irakatsiz».

Zure iritzia zein zen?

Ni apaiza naiz, neure historia daukat, eta uste nuen hobe zela eliz erakunde bezala sortzea. Konkordatua bizirik zegoen orduan eta, sortzen bazenuen erakunde bat Eliza barruan, erregistro zibilean ere zeure nortasuna lortzen zenuen. 1975ean egindako batzar batean erabaki genuen eliz erakundea izango zela. Aurretik, Euskal Kultura Sustatzeko Idazkaritza eratu zen Elizbarrutiaren barruan eta ni izendatu ninduten horren idazkari. Orduan, gotzainak niri eman zidan Ikastegia martxan ipintzeko mandatua. Diru laguntza bat ere eman zuten.

Zer jarrera izan zuten Gotzaindegian?

“

Niretzako gauza ederra da gure Elizbarrutiaren barruan egotea Labayru Ikastegia

”

Bilboko Administratzaile Apostoliko zela, Zirarda gotzainak begi onez ikusi zuen hasieratik gure ekintza. Eta 1976tik azken bultzada Bilboko gotzain laguntzaile Juan Maria Uriartek eman zion. Añoveros gotzainak esan zuen: «Zergatik ez dugu babestuko Kontzilioaren dotrina berrian oinarritutako erakunde bat, *Pacem in terris* entziklikarekin bat datorrena?». Horrela, Labayru Ikastegia Añoveros gotzainaren dekretu baten bidez sortu zen, 1977an. Niretzako gauza ederra da gure Elizbarrutiaren barruan egotea Labayru Ikastegia. Elizbarrutiak ez dio inoiz inolako eragozpenik ezarri. Gure gotzainak aldekoak izan dira: Añoveros, Larrea, Etxenagusia —gotzain laguntzaile egin zuten Udako Ikastaroan hogeitau urtean irakasle izan zena—... Ricardo Blázquez, oraingo gotzaina ere, gure lanen aldeko agertu da beti.

Elizbarrutiak, babesa ez ezik, askatasuna ere eman al dizue?

Inoiz ez da egon haserrerik. Are gehiago, beti harrera ona eta iritzi ona. Oso ondo konpondu gara eta Labayru erakundearen autonomia oso-osoan errespetatu da.

Lan esparrua zabaltzen

Ordurako martxan ziren lan arloak bere gain hartzeko sortu zen Labayru, ala beste helburu batzuk ere hartu zituen?

Labayru Ikastegiaren helburuak askoz orokorragoak ziren: euskara hedatzea, alfabetatzean sakontzea, euskara irakastea, argitalpenak egitea... Gure Estatutuek, hitzez hitz, hauxe diote Labayru Ikastegiaren helburuari buruz: «Euskal Herriaren kultura balioak zabaldu eta sendotzeko egitarau eta ekintzak sortu, laguntzak bilatu eta aurrera eroatea da, horretara kultura ondasunon bidez Eleizeari ebanjelizatze-lana gizakiaren alde hobeto beteten lagun deion». Gero, zuzendaritzak berak zehazten du egitasmoak zeintzuk di-

ren. Baina lehendik hasita zeuden ekintzak etxeratu egin genituen. Eta Labayru Ikastegiak eman zien, hasiera hartan, halako babes bat eta nortasun juridikoa.

Aldi hartan ez zegoen horrelako erakunde askorik Bizkaian! Euskaltzaindia, Euskalerrriaren Adiskideak, Euskera-zaleak eta gu. Ez zegoen besterik. Hain gutxi ginen, ezen, Labayru sortu eta gutxira Eusko Ikaskuntza berriro eraiki edo birsortu zenean, Labayru Ikastegia erakunde bezala sartu baitzen Eusko Ikaskuntzaren Batzordean. Eusko Ikaskuntza sortu aurreko batzarretara ere joan nintzen, Don Jose Migel Barandiaranek deituta, eta behin-behineko zuzendaritza batzordean izan nintzen, bigarren idazkari legez.

Zein zarete Labayruren sortzaileak?

Hogei lagun izan ginen Labayruren sortzaile. Hauxe da zerrenda: Jon Arrieta, Juan Jose Aspuru, Javier Astorki, Maria Concepcion Barrutia, Juan Beitia, Luis Benito del Valle, Txomin Bereziartua, Bernabe Jauregi, Nikola Madariaga, Jon Malaxetxebarria, Jose Mari Mujika, Miren Mujika, Teresa Rotaetxe, Mikel Saenz de Cabezón, Juan Maria Uriarte, Ignacio Uribarri, Juan Luis Villota, Begoña Zearra eta Sabin Zubiri. Gaspar Martinez izendatu zuten lehenengo zuzendari, eta sei urtez izan zen ardura honetan.

Zu noiztik zara zuzendari?

Gaspar Martinez Londresera ikasten joan zenean, *London School of Economics* delakora, hartu nuen zuzendaritza, 1985ean. Baina Gaspar Martinez zuzendari zenean ere, arduradun nintzen Ikastegiaren sail batzuetan. Gaspar oso prestatuta zegoen, Ekonomian lizentziatua zen, baina ez zegoen murgilduta ni bezala euskal mundu horretan.

Estanislao J. Labayru historiagilearen omenez eman zenioten erakundeari Labayru izena. Zergatik?

Eman egin ziguten. Ez ginen izan Labayru izenaren proposatzaileak ezta kontrakoak ere. Izenak berak ez digu inporta.

Elizbarrutiak erabaki zuen?

Ez dakit nola izan zen. Estanislao J. de Labayru apaiza eta historiagilea izan zen, Bizkaiko lehenengo historia kritikoa egin zuena. Lehengo mendearen hasieran hil zen, eta bere diru guztia eman zuen, gehienbatean, Bizkaiko historia argitaratzeko. Sei liburuki argitaratu zituen. Historia ona da, historia baino gehiago kronikak dira, baina dokumentazio onean oinarrituak. Barandiaranek asko estimatzen zuen Labayruren obra. Oso euskaltzale ageri da Labayru. Ez zen abertzale, baina bai euskaltzale. Bere lehenengo liburukia hartzen baduzu, ikusiko duzu nola aipatzen eta goratzen duen gure hizkuntza, euskaldunak herri bat garela esaten du... Uste dut horregatik izan zela izenarena. Norbaitek esan zuen: «Labayru integrista bat zen!». Ez genion inportantzia handirik eman iritzi horri.

Elizaren babeseko erakundea da Labayru, baina laguntzaile sare zabala du, ezta?

Gaur egun, Labayru Ikastegian guztira 400 bat laguntzaile izango gara. Laguntzailea dirua jartzen duena da: hasieran kapitaltxo bat, eta urtero diru-laguntza. Laguntzaileek osatzen dute, hain zuzen ere, Ikastegiaren Batzar Nagusia. Laguntzaileek aukeratzen dituzte euren artetik Artezkaritzako zortzi bokal, eta gotzainak beste lau. Ondoren, Artezkaritzak proposatzen du zuzendaria, eta gotzainak izendatzen du. Horrela funtzionatzen dugu.

Lan arloei dagokienez, zer bilakaera izan du Labayru Ikastegiak?

Ikastegia bere lan esparrua zabalduz joan da. Euskara irakastetik ikerketa eta literatura-kritika egitera igaro da. Herri erlijioaren gaineko lanak egitetik, ikerketa etnografikora. Ondare bibliografiko urria edukitzetik, euskal gaiei buruzko liburutegi eta agiri-artxibo oparoa izatera eta, gainera, argitalpen zerbitzuari esker, Ikastegiaren beraren obra-katalogo garrantzitsu bat izatera.

Gaur egun, esate baterako, badugu literaturari buruzko mintegi bat, eta literaturari buruzko aldizkari bat ere argita-

ratzen dugu [*Idatz eta Mintz*]. Uste dugu hutsune bat betetzen dugula, literatur aldizkariak oso urriak baitira Euskal Herrian: *Maiatz, Egan, Hegats...* Elkartu egin gara guztiok oraintsu, denon artean harpidetzak errazteko. Itzulpen zerbitzu bat ere sortu genuen Labayru Ikastegian. Bost-sei lagun daude itzultzen, eta eskola bat sortu dute. Itzultzeko ikastaroak ematen dituzte, batez ere uda partean. Gero, udalenzako eta enpresentzako erabilera planak dauzkagu. Hau da, laguntasuna ematen diegu, euskararen arloko lana eratzeko, edota barruko nahiz kanporako harremanak euskaraz egin ditzaten.

Beste egitasmo berri bat sortu da duela bi edo hiru urte, herri ondarea modu sistematikoz aztertzea. Etnografia ikerketa da, euskaraz egina, batez ere euskara egiten den herrietan. Hainbat ikerketa egin ditugu Bizkaian: Berrizi buruzkoa argitaratu dugu, eta oraindik argitaratu ez badira ere, eginda eta argitaratze bidean ditugu Uribe-Kosta, Galdakao eta Ugao-Miraballes-Arrigorriaga eta Maruri-Jata-beri buruzko ikerketak. Etno-toponimia lanak ere egin dira Basaurin, Lezaman, Elorrion, Etxebarrin, Larrabetzun, Mungian eta Zamudion. Labayru Ikastegiaren hedatzea horrelako lanetatik dator. Euskal Biblioteka ere asko hazi da eta, azken batean, Ikastegira jende askok jotzen du kontsultak egiteko. Ez dugu jarri horrelako kontsultorio berezi bat kultura aldetik, baina egunero dator norbait kontsulta egitera.

Ikerlariak?

Euskal Biblioteka guztiei irekita dago, ikerlariak izan edo, beste barik, datu bila edo iritzi bila datorren jendea.

Barandiaran maisu

Labayru Ikastegiaren lan ildo nagusietako bat da etnografia. Ikastegia bera sortu aurretik hasi zineten, gainera, Jose Migel Barandiaranen gidaritzapean. Nola hasi zen harreman hura?

Ni Lovainatik etorri berritan, euskarazko eskolak ematen ziren Seminarioan; baina konturatu nintzen belaunaldi berriak ez zeukala gure kultur prozesuari buruzko ezaupide handirik, eta belaunaldi zaharrek ere ez. Eta apaizgai batzuekin lanean hasi nintzen, batez ere XX. gizaldiko Euskal Herriko kultur mugimendua ikasten. Eta ez nuen aurkitu bide hoberik haxe baino: bibliotekan sartuta nengoen jandak eta Eusko Ikaskuntzaren kongresuetako txostenak hartu nituen: lehenengoa, 1918koa Oñatin; bigarrena, Iruñekoa [1920]; hirugarrena, Gernikakoa [1922]; laugarrena, Gasteizkoa [1926]; eta bosgarrena, Bergarakoa [1930]. Talde bati eman nizkion txostenak, irakurri eta azterketa egiteko. Oraindik gogoratzen dut eurentzako nolako inpaktua izan zen konturatzea zelan egon zen halako mugimendu bat 1920ko hamarkadan. Barandiaranen lana ere orduan ezagutu genuen. Bere idazlan batzuk irakurri eta kulturazko ikastaro bat egin genuen, seminarioan bertan. Horretan geunden, eta Barandiaran sartu zen bitarteko. Zergatik? Nik eza gutzen nuen Barandiaran.

Noiztik edo nondik?

1958an, ni apaiz egin berria, Bilbon nengoela, behin kalean aurkitu nuen, kasualitatez!, eta ezagutu egin nuen. Bera zihoan aurretik eta ni atzetik. Pausoa arindu, beraganatu eta bere aurrean aurkeztu egin nintzen. Ni neu apaiz jantzita, eta bera ere bai. Berak bestaldeko apaiz baten tankera zeukan, zeren gerrikotxo bat zeukan. «Zu nor zara?», galdetu zidan. «Ni Ander Manterola». Eta berak: «Gabirel Manterolaren ezer bazara?». «Iloba». Eta bazkaltzera gonbidatu ninduen. La Estrella jatetxera, Bilboko arkeologia-museoaren ondoan. Bera museora zihoan, azterketak egiteko.

Ezaupidea baneukan, baina ez hartu-eman handirik, zeren orain esango dizudana hamar urte geroagokoa da. Kontua da konturatu ginela beharrezkoa zela zertxobait egitea kulturari buruz, banekien zerbait bibliografiatik. Oraindik ez zeuden argitaratuta Barandiaranen obrak. Hurrengo ur-

tean hasi zen argitaratzen *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca* eta bere lan osoa.

Eta Barandiarani deitu zenioten.

Barandiaranek 1969an Nafarroako Etniker taldea sortu zuen, Nafarroako Unibertsitatean. 1971-72an Gipuzkoan hasi zen, Aranzadi taldearen barruan, asmo berdinarekin, eta Araban hastekotan zegoen Iradier taldearekin. Apaizgai izandako batzuek deitu zioten Deustuko Unibertsitatera. Eta Deustura etorri zen. Kontua da Barandiaranen ezaupidea hartu genuela, eta gonbidatu egin nuen Derioko Seminario-ra etortzeko; 1972. urtearen udaberria zen. Hiru eguneko ikastaroa eman zuen Derioko Seminarioan, bai apaizgaiei eta bai unibertsitateko ikasle batzuei, etnografiako metodologiari buruz. Barandiaran ez zen klase teorikoak ematearen zalea. Beti esaten zuen: «Hara, bizi duzuna ikertu egin behar duzu, ikerketa bidetik ikasiko duzu». Ikerketa mundura bultzatu gintuen Barandiaranek. Non ikertu? Zeure herrian. Zeure etxekoekin. Hori zen bidea: has zaitetz hurbiletik, ez ezazu egin antropologia teorikoa... Ezagutu zeure ingurua, bizi izan duzun kultura: «*Nosce te ipsum*» (ezagutu zeure baitakoa). Talde bat eratu behar zen ikerketa hori egiteko. Hor-tik hasi ginen, horrela sortu zen Etniker Bizkaia.

Barandiaranek metodologia azaltzearekin batera Etnikerren asmoa ere agertu zizuen?

Bai, etnografia ikerketa egiteko bere galdetegi berria oraindik argitaratzeko zegoen. Baziren etnografia galdetegiak aurreragoko urteetan berak argitaratuak: 1934an eta 1960an. Etniker lana egiteko 1974an eman zuen argitara galdetegi berria: *Guía para una encuesta etnográfica*. Bertan azaltzen zuen asmoa eta metodoa. Galdetegi honen lehengo atalburuak bagenituen, berak emanak, gure lanerako. Hamar-hamabost gazte ikerzale ginen. Bi hiletik behin biltzen ginen, hilero hasieran. Barandiaran etorri egiten zen gure batzarretara. Hobeto esateko, ekarri egiten genuen Ataundik hona.

“

Bost bat urtetan
etorri zen
Barandiaran gure
Derioko Euskal
Bibliotekara,
1972an hasi eta
1977ra

Bila joaten zineten?

Neu joaten nintzen bila. Larunbatez elkartzen ginen goizeko hamarretan edo hamar eta erdietan. Hemengo Euskal Bibliotekan goiz guztian egoten ginen berarekin. Bera azaltzen, eta gutariko batzuk egindako ikerlana irakurtzen. Metodo horrekin hasi ginen. Bost bat urtetan etorri zen Barandiaran gure Derioko Euskal Bibliotekara, 1972an hasi eta 1977ra.

Zuek zer ikerketa egiten zenituzten?

”

Berak emandako galdetegiaz egiten genituen geure ikerketatxoak: elikadura, etxea, familia, itsasoko arrantza... Hortik hasi ginen. Esate baterako, Gurutzi Arregi, nirekin lan asko egin duena, ermitak eta euren inguruan zeuden ohiturak eta ospakizunak ikertzen hasi zen. Handik hamar urtera, 1987an, obra eder bat atera zuen Bizkaiko ermitei buruz hiru liburukitan. Barandiaranek emandakoa bide berri bat zen guretzat. Horren aurretik, dena zen liburuak irakurri, liburuak ikasi eta pentsamenduak horren arabera taxutzea. Hura ez. Hura beste metodo bat zen: errealitatera jaitsi, ikusi zer gertatzen zen, itaundu, idatzi entzundakoa, iritzien bilduma jaso, laburpena egin, txostena idatziz jarri...

Zer inpresio egin zizuen orduko Barandiaranek? Zer zen zuentzat?

Maisua. Ez zen irakasle bat, maisua zen. Hurbileko maisua. Benetan apala. Ez zuen horrelako hitzaldi handirik egiten. Harena elkarrizketa zen. Itaundu egiten zuen asko, eta horrek bidea ematen zigun guri ere berari itauntzeko. Elkarrizketak izaten ziren gure arteko saioak. Jakina, maisuki ere jokutzen zuen! Gogoratzen naiz behin gure lagun batek esan zuela: «Bermeon matriarkatua da nagusi». Eta berak: «Matriarkatua? Zuk badakizu zer den matriarkatua? Matriarkatua sistema juridiko bat da! Ez da emazteak etxean agintzea. Hori ez da benetan matriarkatua». Zehaztasunak jakituriaz ematen zituen.

Atlasa helburu

Barandiaranek taldeak hainbat herrialdetan sortu zituela esan duzu. Baina noiz hasi zineten zeuen arteko elkarlanean?

Nafarroako Etnikerrek Bizkaikoak baino lehenago hartu zuen indarra. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkaria argitaratzen hasi zen 1969an. Gero, Araban, *Ohitura* aldizkaria sortu zen, Gipuzkoan *Anuario de Eusko-Folklore* zegoen aspalditik, gerra aurretik. Bizkaikook *Etniker-Bizkaia* plazatu genuen 1975ean. Barandiaranek esan zuen: «Lan egiten badugu lau herrialde hauetan, zergatik ez gara elkartzen urtean behin?». Eta horrela elkartu ginen Aralarren, 1976ko ekainean. Orduetik hona, Euskal Herriko Etniker talde guztiak urtero elkartzen gara, urtero, eta ez dugu hutsik egin. Uste dut 35 bider elkartu garela, eta akta jasotzen dugu batzar bakoitzean.

Urtero-urtero batzarra hainbat herritan egiteak bidea eman digu geuk ere kontzientzia berri bat hartzeko. Batzarrek egin izan ditugu Aralarren, Uxuen, Eunate, Biasterin, Kexaan, Urkiolan, Agurainen, Gasteizen, Durangon, Donostian, Baionan, Saran, Bilbon, Iruñean, Ataunen (bost edo sei bider)... Konturatzen zara zeure herria zer den, oso desberdina dela leku batetik bestera. Azkenengoa Vianan izan zen eta aurtengoa Izturitzen izango da. Desberdintasun hori azterketan ere azaltzen da: batzuek inkesta euskaraz egiten dute, beste batzuek espainolez eta beste batzuek frantsesez. Gure helburua, azken batean, zehaztasunez adierazten ematea da, zein izan den orain arte gure herri kultura.

Aralarko bilera hartan federazio moduko bat osatu zenuten?

Bai, federazio antzeko bat sortu zen: Etniker Euskal Herria. Orduko denboretan jende ospetsua zegoen Etniker taldeetan, etnografo onak. Aktetan ageri dira denak. Gogoratzen ditudanak, hauek: Nafarroatik Jose Mari Satrustegi, Javier Zubiaur, Maria Amor Begiristain, Luciano Lapuente, Jose Maria Jimeno Jurio; Gipuzkoatik Josetxo Zufiaurre, Karmele Goñi,

Antxon Agirre, Koldo Lizarralde; Arabatik Henrike Knörr, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Lopez de Gereñu gaztea, Isidro Saez de Urturi, Juanjo Galdos; Bizkaitik Gurutzi Arregi, Antton Erkoreka, Joseba Agirreazkuenaga, Jose Mari Etxebarria, Juan Manu Etxebarria, Luis Manuel Peña, Juan Cordon eta beste asko, gero izena hartu dutenak. Baina, horiek euren izentxoak zeukaten, publikazioak ere atera izan zituzten. Gero-ra belaunaldi berri bat sortzen ari da Etnikerren.

Atlas etnografikoa egiteko asmoa ordukoa da?

Euskal Herriko Atlas Etnografikoa handik hamar urtera, 1987an, hasi ginen egiten, baina Atlasaren beharrezana lehenago agertu zuten, Barandiaranek eta Julio Carok, 1960an, Donostiako San Telmon egindako batzar batean. Atlas kultural bat egitea beharrezko genuela aldarrikatu zuten. Geroari adierazi behar geniola Euskal Herria zer izan den kulturaren aldetik. Eta horretarako bidea ez zela asmakizunak egitea, ez historia sublime batzuk idaztea, baizik eta aztertzea herri kultura. Barandiaranek bide hori irakatsi zuen; horretarako idatzi eta argitara eman zuen, 1974an, inkesta egiteko gida: *Guía para una encuesta etnográfica*. Galdetegi hau Europako beste herri batzuetan egindako ikerketekin parekatua zegoen. Erdaraz atera zuen; gero euskaratu egin da. Galdetegian azaltzen dira zein gai aztertu behar dituzun. Horren bidetik sortu zen, Etnikerren barruan, Atlasa egiteko ekimena.

Atlasaren koordinazio lana zuek hartu zenuten, Bizkaiko Etnikerrek.

Etniker ikerlanetan genbiltzanok urtero biltzen ginen, orain Nafarroan, hurrengo Araban, gero Bizkaian, ondoren Gipuzkoan... Baina ohartu ginen hori bakarrik ez zela nahikoa. Bizkaiko taldearen proposamena izan zen: zergatik ez ditugu ikerketak berdintzen denboraz, eta denok aztertu urteka gai bera? Horretarako batzorde bat behar zen ikergaien planifikazioa egiteko. Gurutzi Arregik proposatu zuen, eta nik babestu, idazkaritza iraunkor bat sortzea hemen, Labay-

ru Ikastegian, Etnografia departamentuan, egitasmoa aurre-
ra ateratzeko, eta beste talde guztiak konforme zeuden.
Nahiz eta talde bakoitzak bere autonomia jagon, aurreran-
tzean idazkaritza honek bilduko zituen lan guztiak, eta he-
men landuko ziren lurralde guztietako taldeek bidalitako
txosten guztiak. Eta horrela egin zen; eta 1987tik laster, le-
henengo liburuki handia, elikadurari buruzkoa, argitaratu
zen. Urte berean, 1987an, Iparraldekoak sartu ziren Etnike-
rren, haien beharrezana genuen.

**Talde berri bat sortu zen, edo lehendik lanean ari zen talde bat
hasi zen zuekin elkarlanean?**

Lehendik bazen Baionan talde bat, Lauburu izenekoa,
kultura ikertzeko sortu zena. Asmoak antzekoak ziren, bai-
na Barandiaranen itzala eta eragina handia zen; eta pozik
sartu ziren Etnikerren. Eta hasi ziren inkesta bera egiten,
euren lan proiektuak bazter utzi gabe.

**Nola egiten da azterketa? Zein da prozesua, ikerketak hasten
dituzunetik liburua argitaratzen den arte?**

Barandiaranen metodoa ondo hausnartuta dago. Herri
kulturak esan nahi du: herriak ikasi duena aurrekoengandik
bizitzari aurre egiteko aldi eta arlo guztietan. Batzuek gehia-
go jakingo dute gai berezi batzuez, eta beste batzuek oroi-
menean gorde dituzte entzundako esaundak, bizi izandako
ohiturak. Denek dakite bizitzen, lan egiten, el-
kartzten, jolasten. Horixe da herri kultura. Non-
dik hasi hori ikertzen? Lehenen aztertu behar
dut neuk dakidana; joan gaitezen gero ingurura,
geure amarenera. Zeure amaren kultura eta zu-
rea berdintsuak dira, baina ez berdin-berdinak,
zeren hark ezagutu ditu gauza batzuk zuk eza-
gutu ez dituzunak. Ama jaio zenean, esate bate-
rako, etxeetan ez zegoen urik. Herriko edo au-
zoko iturrira joan behar zen uretan. Ez zegoen
gaurko elektrizitate argirik, krisailua zegoen;
kultura bera da, baina diakronia prozesu batean.

“

Kultura aztertzen
dugu geugandik
hasita eta geure
ingurutik hasita

”

Beraz, kultura aztertzen dugu geugandik hasita eta geure ingurutik hasita, eta inguruko koordinazioa eginez, auzotegitik hasita. Inkesta egitea ez da, hartu blok bat eta itaunka joatea. Galderak zeure buruan dituzu. Galderarik sinpleenak egin, esate baterako: zenbat bider jaten duzue egunean zehar? Zer jaten duzue? Zein da janari bakoitzaren izena?

Herri batean zenbat jenderi egiten zaizkio galderak, ikerketak oinarria izan dezan?

Horretan ez dago neurririk. Lan hau ez da soziologia. Soziologian edo soziometrian zenbakiak behar dira, baina etnografian herrian sustraituta dauden lekuko testigantzak behar dira. Guk ez ditugu jazoerak biltzen, ohiturak baino. Hau da, egonkortasun luzeagoa duten jazoerak. Igandero etxean zer bazkaltzen duten jakiteko itaundu zeure etxean, zeure izebarenean, zeure auzokoen etxean, eta zer ateratzen da? Hemen, gehienbatean, igandetan garbantzu jaten zela. Ez da behar inkesta ugariak egitea gure herri eta hiri txikietan ondorio zehatzak ateratzeko.

Eta zenbat herritan?

Ikertzaile bakoitzak bere herrian, bere jaioterrian egiten du ikerlana. Ez da irteten beste herrietara. Bizkaian hamasei herri ikertu izan dugu: Gipuzkoan, bederatzi; Araban, hasieran zortzi-bederatzi, eta orain gehiago. Eta Nafarroan, inoiz heldu dira hogeira, eta orain ibiliko dira hamabost-hamaseirekin. Iparraldean sei-zazpi; inoiz hamar-hamabi ere bai.

Noiz arte izan zen Barandiaran zuen ikerketen gidari?

Hil baino bi urte lehenagora arte, 1989. urtera arte. Ehun urteko gidaria eduki dugu benetako maisua. Bera hil aurreko lau-bost batzar Ataunen izan ziren Victor jantokiko gela handi batean. Herrialdez herrialde ibili beharrean, hobe zen bertara, Ataunera, geu denok joatea.

Barandiaranen egitasmoa, Barandiaranik gabe, arazorik gabe joan da aurrera? Nahikoa zehaztuta utzi zuen dena?

Zehaztuta, bai gai aldetik, bai metodologia aldetik, bai taldeen eratze aldetik. Barandiaranek ez zuen proiektu hutsa egin. Taldeak ere sortu zituen, eta taldeei bideak eman ere. *Euskalerriko Atlas Etnografikoa* hainbat lekutan aurkeztu dugu; esate baterako Mallorcan, Lleidan, Galizian, Salamanca. Badakizu zer esaten diguten? «A zer zorzea daukazuen; iker taldeak dituzue!». Eurek ez dute talderik. Eta lan hau iker talde gabe ezin daiteke egin. Etniker taldeak Barandiaranek berak sortuak dira.

Bukatzeko presa

Atlasaren eskema ere, gaien aldetik, Barandiaranena da.

Bai. Atlasa argitaratzen elikaduratik hasi ginen. Gaietatik errazena zelako [*Etxeko elikadura*, 1990]. Bigarrena izan zen *Haur jolasak* [1993], hirugarrena *Heriotza ohikuneak* [1995], laugarrena *Jaiotzatik ezkontzarako ohikuneak* [1998], bosgarrena *Abeltzaintza eta artzaintza* [2000], seigarrena *Herri medikuntza eta albaitaritza* [2004], eta orain zazpigarrena izango da *Etxea eta familia*.

Atlas osoaren zer zati da hau?

Galdetegiak berak zortzi kapitulu ditu. Argitaratutako liburuki horiek kapituluaren atal batzuk dira. Inkestako gaiak dira gutxi gorabehera: etxe barruko ohiturak (elikadura, jatzera, medikuntza, jolasak, familia); bizitzan zehar egiten diren ospakizunak (jaiotza, ezkontza, heriotza); bizimoduak (nekazaritza, artzaintza, arrantza, eskulanak); auzunea eta auzuneari dagozkion ohiturak eta araudiak; kulturgintza (eskola, erlijioa); ipuinak eta esaundak (mitologia). Ohizko kulturaren ikuspegi oso bat.

Barandiaranek bazuen ohizko kulturaren aldaketa-kontzientzia: kultura berez aldakorra da. Horregatik gerora beste azterketa batzuk egin beharko dira. Baina presa dago oraingo kulturaren ikerketa egiteko. Zergatik? Makinismoak

aldatu egingo duelako gure biziera. Galdu baino lehenago, bizi-bizian har ditzagun ohitura horiek.

“

Pres a dago oraingo kulturaren ikerketa egiteko, makinismoak aldatu egingo duelako gure biziera

”

Zortzi kapitulu, sei liburuki... zenbat liburuki falta dira Atlasa osatzeko?

Gure asmotan hamalau liburuki izango dira guztira. Hasierako plangintzan gehiago ziren, baina hamalaura etorri gara. Zazpigarrena bidean denez, beste zazpi falta dira argitaratzeko. Eginbehar bat da ikertzea, beste bat ikertutakoa lantzea, eta beste bat, landutakoa argitaratzea. Ikertuta daude jadanik beste gai batzuk ere: soineko edo jantzien mundua; nekazaritza; arrantza; eskulanak edo artisautza. Aurten ikeretzen ari gara auzoa. Gutariko batzuek dagoneko ikertuta dute osorik galdetegian eskatzen dena. Bermeon inkesta osoa egina da: zortzi kapituluak. Gipuzkoako Beasainen ere egina dago, baita Nafarroako Ameskoan eta San Martin Unxen, eta Arabako Agurainen ere bai. Barandiaranek berak egin zuen Lapurdin Sarakoa. Horiek guztiak osorik eginda daude, eta argitaratuta ere bai herri-monografia bezala.

Zenbat denbora beharko da Atlasa bukatzeko?

Beti gaude presaz. Gu biltzen ari garen kultura joan doa. Gaur eguneko belaunaldikoak gaitasun gutxiago dauka lehengo kultura barrutik aztertzeke. Belaunaldi berriak gaurko kultura aztertu beharko du, eta guk, zaharrear hezita gaudenok, lehengoa. Guk, Jainkoa lagun, beteko dugu geure eginbeharra. Noiz argitaratuko den Atlas osoa? Ez dakit.

Zenbat lagun ari zarete Atlasa egiten?

Ikertzaileen kopurua ez da finkoa: 60tik gora eta 85etik behera. Borondatezko lana da. Ikerketa zerbait ordaintzen da. Iker txosten bakoitzeko zer edo zertxo; ez dakit bakoitzaren gastuak ordaintzeko ere iristen den. Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso genuen 1987an hasita, lehenengotan polita, gero

murriztu egin zuten. Nafarroako Gobernuak babestu zituen Barandiaranen hasierako proiektu batzuk 1970 inguruan; gero ere eman dio babes bat Nafarroako Etniker taldeari.

Bizkaiko Etnikerren arduraduna eta Etniker Euskal Herriako presidentea zara. Zer eginbehar izan dituzu Etnikerren?

Beti bezala, eratu, planifikatu, konpondu, bideak eman... Neuk ere egin dut etnografia, zerbait argitaratu ere egin dut. Atlas Etnografikorako hainbat kapitulu idatzi ditut liburuki bakoitzean, eta behinola argitaratu nuen Etor argitaletxearen *Euskaldunak* liburukietan etxeari buruzko lan luze bat.

Bost liburuki horien zuzendaritza ere eraman zenuen, ezta?

Bai. Etniker proiektu barruan sortu genuen aldizkari bat Bizkaiko lanei bidea emateko. Urtekaria da, *Etniker Bizkaia* izenekoa. Badakizu zergatik atera genuen aldizkari hori? Norbaitek ikusten duenean bere ikerlana inprentaz argitaratuta, ziurtasun bat hartzen du bere buruarekin. Eta ziurtasun hori lanean jarraitzeko beharrezkoa da. Ez badiozu ematen ikerlariari bide bat idazteko, ez du idatziko. Apaiz berri nintzela Ekintza Katolikoan hazi eta hezi nintzen. Beti izan dugu gogoan han ikasitako bidea: jendeari eragitea, norberak egitea barik. Nire bizitzan hori izan da gehiago: egin barik eragin. Ez dakit asko egin dudana, baina eragin, bai, asko eragin dut.

Atlasa bukatzen duzuenean, Etnikerren lana bukatu egiten da?

Barandiaranek bideratu zuen ikerlan hau, bai. Baina Atlasetik kanpo ere badago zer ikertu etnografia arloan. Barandiaranek esaten zuen beste atlas etnografiko bat egin behariko zela XXI. mendean. Guk ez dugu ikusiko, baina egiten bada, jakingarria izango da ikustea nola aldatu den guk bizi izan dugun kultura.

Barandiaran Fundazioan

Eusko Ikaskuntzaren sorreran ere parte hartu zenuela aipatu duzu lehen.

“

Eusko Ikaskuntzan, nire ekarpena, besteak beste, Barandiaran Fundazioa egiteko asmoa izan zen

Oñatin 1977an birsortze batzar nagusia egin aurretik, urte erdiz jardun zuen behin-behineko batzorde batek, eta harako deitu ninduen Barandiaranek. Gero, Bizkaiko lehendakariorde aukeratu ninduten, eta hor egon naiz hamalau bat urte. 1992an utzi nuen. Eusko Ikaskuntzan, nire ekarpena, besteak beste, Barandiaran Fundazioa egiteko asmoa izan zen.

Eusko Ikaskuntzaren barruan sortu zen, orduan, Barandiaran Fundazioa.

”

Bai, Eusko Ikaskuntzaren adar bezala. Nahiz eta bere obra osoa argitaratua izan, bazeuden ikerlan eta dokumentu asko bere paperen artean; gainera, bazegoen bere lan batzuk hobeto argitaratu beharra. Horretarako sortu zen 1989an Barandiaran Fundazioa.

Barandiaranek testamentua egina zeukan. Eta berarekin hainbeste urtean bizi izan zen bere iloba Pilarri utzi zion bere ondarea. Ataungo Sara etxea Pilarrena zen eraiki zuenetik, 1953an. Eusko Ikaskuntzak erosi egin zion honi Barandiaran bizi izan zen etxea, Fundazioaren egoitza izateko.

Zer helbururekin sortu zenuten Fundazioa eta zein neurritan bete ditu helburuak?

Hauek dira helburuak: Barandiaranen figura zientifikoa eta bere lana zaintzea eta hedatzea; bere ikerlanak berrargitaratzea, zehaztasun handiz, zientifikoki; eta bere obra batzuk hedatzea beste kultura batzuetara. Esate baterako, bere *Euskal Mitologia* errusieraz argitaratu berri da; Fundazioak ordaindu du itzulpen hori. Asmoa dauka liburu bera ingelesez, japonieraz eta txineraz ateratzeko, mundu zabalean ezagutua izan dadin gure mitologia. Zergatik ez? Oso gutxi zabaldua izan da Barandiaranen obra. Badakigu ez dela izango *best seller* bat Errusian, baina ezagutua izan dadila.

Lehendabizi Fundazioan lehendakariorde izan nintzen; gero urte batzuetan erakundetik at egon naiz eta oraintsu berriro sartu naute batzorde zientifikoan.

Zuk zeuk ere aztertu duzu Barandiaranen bizitza eta obra, eta argitaratu ere bai horri buruz.

Barandiaranen lanari eta bizitzari buruz obra bat idatzi dut. Bertan zehaztu egin ditut bere bibliografia eta bere ekintza zientifikoak [*Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran*, 2003]. Bigarren lan bat ere egin dugu Fundazio-rako Gurutzi Arregik eta biok. Barandiaranen obrarik zehatzena: *Eusko-folklore. Materiales y cuestionarios* da. Euskaraz, espainolez eta frantsesez argitaratu zituen aldizkari txiki honen 211 zenbaki 1920tik 1975era. Lehenengo Gasteizen, gero erbestean zegoela, Baionan eta Saran; azkenean Donostian. Sakabanatuta zegoena bildu eta aldizkaritxo honen argitalpen zehatz bat prestatu dugu bi tomotan.

Barandiaranen bizitzak XX. mende osoa betetzen du. Ez dut uste gure arteko inork bere bizitzan horrenbeste harreman izan duenik atzerriko jakitunekin. H. Breuil, Hugo Obermeier, Bosch Gimpera prehistoriagile ospetsuak ziren European aldi hartan eta Barandiaranen ikerketak eta lanak ezagutu eta onartu ere egin zituzten. Entzute handikoak izan ziren etnografo eta antropologo hauek ere: Arnold Van Gennep, W. Schmidt, Henri Rivière, B. Malinowski, F. Krüger, André Varagnac, Hoyos Sáinz eta beste asko. Guztiokin izan zuen hartu-eman, eta euretariko batzuekin urte askotakoa.

Zure ustez Barandiaranek merezi besteko aitormena jaso du?

Bere bizitzaren azken aldian, bai. Jendea konturatu zen Don Jose Migel aparteko figura bat izan dela, aparteko nortasuna izan duena, gutxitan sortzen denetarikoa. Zahartzaroan, jada 85 urte zeuzkanean, errekonozitu egin zioten hori, bai erakundeek eta bai unibertsitateek. Beraren fruitu guztiak ez dira oraindino banandu. Oraindino asko atera daiteke.

Ezezaguna da neurri batean Barandiaranen lana?

Bai. Esate baterako, euskal mitologia berak finkatu du, berak zehaztu eta aztertu. Mariri buruz Barandiaranek egin-dako ikerlana antologikoa da. Gerra aurrean egin zuen eta

beharbada ekarpenik handienetarikoa da. Beste ekarpen bat, eskergabea, berak bildutako ipuinak eta esaundak. Honetan Barandiaranek metodologia berri bat ezarri zuen; bere garaian Europan nagusitu zen etnografia egiteko bidetik hartutakoa. Ikerketa egitean Azkue eta Barandiaran desberdinak dira. Azkuek ipuin eta esaunda asko bildu zituen; ikertzaile handia izan da. Baina ukitutxo batzuk ematen zizkion berak bildutakoari, apur bat gozotzeko, apur bat edertzeko. Barandiaranek ez. Barandiaranek bere-berean hartzen eta ematen zuen herrikoei entzundakoa. Informatzailerak bera, lekukoa bera, jartzen zuen protagonista. Hori da etnografia zehatzaren eginbearra.

Fundazioak lan handia duela esan duzu. Zer du egiteko?

Orain Fundazioa Barandiaranen artxiboa aztertzen ari da. Artxibo ugaria da. Barandiaranek anotazio asko idatzi zuen: bai bere bizitzako arazoei buruz, bai etnografia lanak egiteko, bai arkeologian egindako azterketak argitzeko. Bere ondare guztia zehaztu egin behar da. Adibidez orain argitaratuko ditugu bere bigarren egunkariarekin batera 50 argazki, sekula argitaratu ez direnak, Barandiaranek berak ateratakoak. Luzaro bizi izan da Pilar bere ilobarekin eta horregatik ez da sakabanatu bere artxiboa. Ez da aberats baten artxiboa, bere bizitzan zehar ikertzaile izan zen gizon jakintsuarena baino.

Anuario de Eusko-Folklore aldizkarian ere zeuk hartu zenuen Barandiaranen lekukoa, ezta?

Barandiaranek 1920an sortutako urtekari honen zuzendaria naiz bera hil zenetik. Gaur egun *Anuarioa* Etniker taldeetan lan egiten dutenek elikatzen dute. Nire eginbearra lanak aukeratu, falta direnean eskatu, inoiz zuzendu ere bai... Barandiaranek berak ere artikuluak zuzendu egin behar izaten zituen.

Idazle edo ikerlari baino gehiago, kudeatzaile izan zara. Zaletasunez edo halabeharrez? Aukera izanez gero gehiago ikertu eta idatziko zenukeen?

Ez naiz kexatzen. Hala suertatu da. Txikitan ere apur bat horrelakoa nintzen. Nire ume lagunuen jolasak neuk eratzten nituen askotan. Lidertzat hartu naute nire lagun izan direnek.

Idazteko beta hartu duzu, hala ere. Argitaratutako lanen artean, zein nabarmenduko zenituzke?

Gustukoen egin ditudanen artean dago Etorren, *Euskaldunak* sailean, argitaratu nuen «La Escuela Vasca de Etnografía». Etxeari buruzkoa ere gustura egin nuen, sail berean. Parisen urte batez etnografia ikasten nengoela idatzi nuen lan hau. Barandiarani buruz oraintsuago idatzi dudan liburua ere, *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran*, atseginez egin dut. Bai eta Atlas Etnografikorako idatzi ditudan kapituluak ere atseginez osotu ditut. Horiek dira gehienbat, zeren neure izenez ez dut askorik argitaratu.

“

Aurrera begira

Labayruko zuzendaritza utzi berria duzu, baina ez diozu utzi Labayrun lan egiteari. Zure ustez, zein dira etorkizunari begira Labayruren lehentasunak edo egiteko nagusiak?

Nire ondorengoek esan beharko dute hori. Gure Euskal Bibliotekari buruz batek esan zidan behin: «Zergatik biblioteka hau hemen, Deustuan badago-eta beste bat?». Erantzun nion: «Eta zergatik egiten dute Deustuan? Badago Madrilen beste bat eta! Eta zergatik egiten dute Madrilen? Badago Washingtonen beste bat eta!». Erakunde kulturalak gero eta gehiago, orduan eta hobeto gizartearentzat. Ez dute elkarrekin lehia egin behar batak bestearen kontra. Bideak bilatuko dituzte, espezializazioan beharbada, edo orokortasunean ere joka daiteke konfrontaziorik gabe. Gure herrietan erakunde gastronomikoak pilaka ditugu. Abesbatzak, beste honenbeste! Baina ez dut ikusten kultur erakunde asko ditugunik, eta ikerketak egiten dituenik, gutxiago. Uste dut Labayru Ikas-

Ez dut ikusten kultur erakunde asko ditugunik, eta ikerketak egiten dituenik, gutxiago

”

tegia bide berriak hartzeko ondo prestatuta dagoela. Orain hogeita hamar urte sortu genuen erakunde honek bere ikaslangileak ditu, hainbat alorretan espezializatuak eta bide berriak hartzeko gaitasuna daukate.

Hasi zinetenean langilerik ere ez zenuten izango eta orain...

Hasieran geu ginen langile!

... orain 60 bat langile dituzue. Sortu zenetik momenturik sendoenean dago Labayru?

Oraintxe bertan beste erakunde askoren antzera larrialdi ekonomikoa bizi dugu. Ezin dugu esan diruz indartsuen gaudenik.

Kulturari ere eragingo dio krisiak.

Bai, ziur. Inbertsioak ez dira izango ikerkuntzarako, kulturarako. Lehentasuna emango diote osasuna zaintzeari, bi-dezabalak egiteari. Heldutasunaren aldetik, momentu onean da Labayru Ikastegia. Barruko jendearen progresioaren aldetik ere bai; titulazio aldetik ere. Baina ez gabiltza prestigioaren bila, ez gara propaganda zaleak, ez gara gehiegi agertzen komunikabideetan.

Zer moduzko harremana izan du Labayruk agintari politikoekin urte hauetan guztietan?

Gure kultur ekintzak euskararen alde diktadurapean hasi ziren. Geroago, demokrazia hasi zenetik, harreman normala izan dugu agintariekin. Bizkaiko Aldundiarekin estuagoa eta hurbilagoa. Ezagutzen dute gure aspaldiko lana. Aldundian gaur egun arduradun diren batzuek euren gaztaroan gure Ikastaroetan ikasi zuten. Eusko Jaurlaritzarekin ere ez gara gaizki konpondu. Gu beti gehiago nahian. Etnografia Sailean, Atlasaren hasieran oso ondo. Gero laguntza murriztu egin digute.

Labayrun izandako eskarmentuan oinarrituta, zure ustez kultur ekimenak modu egokian babestu eta sustatu izan dituzte agin-

tariak? Agintariei arlo honetan aholkurik ematen ausartuko zinateke?

Kulturgintza ez da agintarien arazoa, edo ez haiena bakarrik; gizartearen arazoa da batez ere. Eta horretarako gizar-teari erraztasunak eman behar zaizkio, batez ere zergen alde-tik; zerga-tasak gutxiagotuz esango nuke. Horrela indartuko litzateke gizar-tean bertan kulturaren aldeko zaletasuna eta gi-zarteak kulturgintzan parte zuzenagoa eta ugariagoa izatea.

Elizaren babespean sortu zen Labayru, Elizak beste itzal bat zeukan garaian. Gaur egun ere eliz erakundea izaten jarraitzeak merezi du?

Gure Aita Santu izan zen Joan XXIII.ak esan zuen Eliza gizaldietan izan dela *mater et magistra*, herrien ama eta irakaslea. Euskal Herriarena ere bai. Azken batean, non idatzi izan dira gure euskal liburu ederrak aurreko gizaldietan? Etxepare, Axular, Kardaberaz, Mogel, Añibarro... Ez eliztar batzuek bakarrik, Elizak berak, bere izatetik eta eginbeharretik, maite du euskara. Ez euskara besteen pareko hizkuntza delako, baizik eta maite du euskara, euskaldunak, euskaradunak, Jaungoikoaren semeak direlako. Horregatik eraman du euskara bere barne bizitzaren erpinera, hau da, bere liturgiara. Gaur egun liturgia euskaraz egiten da gure Elizan. Eta guretzako, sinestedunentzako, inoiz ez da aldunduko gorengo maila horretatik. Elizak horretan inoiz ez du atzera egingo: Vatikanoko II Kontzilioari jarraituz. Hori horrela izango da euskaldunek kristau izaten jarraitzen duten bitartean. Gaurko gizar-tean eta Labayru Ikastegian ere denak ez dira kristauak. Baina gure lanak eta lanetik sortzen diren emaitzak kristau ez direnentzako ere badira. Kristau ez direnak ere hartzen ditugu lankide gure Ikastegian.

Gizar-tearen sekularizazioa eta seminarioen hustea nola bizi izan duzu, elizgizon eta abade zarenez?

“

Gure lanak eta lanetik sortzen diren emaitzak kristau ez direnentzako ere badira

”

Sekularizazioak baino gehiago tristetzen nau Elizatik desertatzeak. Dena dela Joan XXIII.ak esaten zuen: «bizi dugun denboraren ezaugarriak dira hauek». Ikasi dut Elizaren historia hogeit hamar mendetan zehar eta ikusi dut Eliza momentu askotan larri bizi izan dela. Bere mezua ere larri bizi izatekoa da, munduko nagusien joeraren kontrakoa delako. Gaur egungo sekularizazioaren arazoa sakona da, esparru zabala batean azertu beharrekoa. Ez da gertatzen hemen bakarririk, baizik eta Europa guztian. Uste dut sekularizazioaren fenomenoak Jaungoikoaren mezu bat dela gaurko kristautentzako: «Egoera berri bat biziko duzue: lehen denak zuen alde, orain gehienak zuen kontra. Ikusiko dut zuen fedea zentzuzko den». Nik neuk gurasoengandik hartutako fedea zaintzen dut, Jesukristorengan sinesten dut, Berari esker.

Labayruren zuzendaritza utzi zenuen, baina Euskal Bibliotekaren ardurarekin eta Etniker Euskal Herriako presidentede jarraitzen duzu. Gaur egungo zure egun batean, zein dira zure eginbeharrak eta lehentasunak?

Nire lehenengo lana da Zeanuriko parrokian egiten dudana: meza ematea, gaixoei bisitak egitea, baserrietara joatea, jendearekin egotea... Gero, goizeko lehenengo orduetan etortzen naiz Deriora, Labayru Ikastegira, eta hemen ematen dut egun gehiena neure lanetan. Esate baterako, orain ari naiz kapitulu bat idazten etxeko ohikune erlijiosoei buruz: materialak biltzen, zuzentzen, eratzen, forma ematen. Arratsaldetan, eginbeharren bat egitera ateratzen naiz Bilbora edo beste tokiren batera, baina gehienbat Labayru Ikastegiko bibliotekan egoten naiz.

Teknologia berriekin batere moldatzen zara?

Zertxobait. Internet erabiltzen dut, baina hartzaile bezala, bibliografiak eta erreferentziak eskuratzeko. Teknologia berrietan nirekin lan egiten duten gazteagoak dira trebeak.

Sari garrantzitsu batzuk jaso dituzu aspaldian, hala nola Bizkaitar Argia (2002) eta Lauaxeta Saria (2005).

Sari batzuk hartu ditut; ez diet garrantzi handirik ematen sariei. Ondo dago, eta eskertzen ditut, baina kontuan hartuz nik beste merezi dutenak asko daudela, inoiz saririk hartu ez dutenak.

Aurrera begirako proiektuak?

Nire osaba apaizarena esango dizut. Itaun egiten ziotenean: «Osaba, zenbat urte dituzu?». Beraren erantzuna izaten zen: «Geroago eta gutxiago!». Bibliotekan jarraituko dut, txikitatik liburuzalea izan naiz eta. Jarraituko dut lanean ahal dudan neurrian, inori biderik ukatu barik; belaunaldia aldatzen ari da. Ikastegian badago jende gaztea. Euren eskuetan dago geroa.¶

Ander Manterolaren argitalpenak

Ander Manterolaren argitalpen ugarien artean, liburu zerrenda osoa doa behean. Liburu horiez gain, hainbat artikulu argitaratu ditu honako aldizkarietan: *Anuario de Eusko-Folklore*, *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía*, *Etniker Bizkaia*, *Euskeraren Iker Atalak*, *Jakin*, *Munibe*, *Non-dik*, *Ohitura*, *RIEV*, *Surge*. Eta baita hainbat liburu atal ere, besteak beste *Euskaldunak* (Etor) eta *Euskalerriko Atlas Etnografikoa* egitasmoetan.

Arregi, G.; Erkoreka A.; Manterola, A.; Guereca, E. *Juegos y canciones infantiles en Vizcaya*. Bilbo: Temas Vizcainos, (55-56), 1979. 111 o.

Manterola, A. et al. *Euskal deklinabidea. Ariketak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1981. 96 o.

Manterola, A. *Felipe Manterola Argazkiak. Fotografías 1904-1930*. Bilbo: Arte Ederren Museoa, 1983. 74 o.

Manterola, A. (Zuz.). *Censo de Bibliotecas del País Vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1989. 3 bol.

Arregi, G.; Barrio Loza, J.A.; Manterola, A. *Anteiglesia de Izurza. Tradición y patrimonio*. Izurtza: Izurtzako Udala, 1990. 279 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.) *Etxeko elikadura*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza, 1991. 755 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.). *Haur jolasak*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza - Nafarroako Gobernua, 1993. 934 o.

Manterola, A.; Arregi, G.; Garcia, J.I. *Bizkaiko elurzuloak. Neveras de Bizkaia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1994. 76 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.). *Heriotza ohikuneak*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza - Nafarroako Gobernua, 1995. 846 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.). *Jaiotzatik ezkontzarako ohikuneak*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza - Nafarroako Gobernua, 1998. 822 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.). *Abeltzaintza eta artzaintza*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza - Nafarroako Gobernua, 2000. 1.020 o.

Manterola, A.; Arregi, G. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran 1889-1991*. Ataun: Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2003. 367 o.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A. (Zuz.). *Herri medikuntza eta albaitaritza*. Bilbo: Etniker Euskalerrria - Eusko Jaurlaritza - Nafarroako Gobernua, 2004.